



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2019ko maiatzaren 24a

62. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Huerta de Peralta enpresako plantillaren grebarako oinarrizko eskubidearen balizko urraketari buruzko txostena, Nafarroako Arartekoaren Erakundeak egina (2. or.).
- Rozalejoko Markesaren higiezinean ikuskatzaileek esku hartzean, Iruñeko Alde Zaharreko bizilagunen oinarrizko eskubideen balizko urratzea gertatzeari buruzko txostena, Nafarroako Arartekoaren Erakundeak egina (16. or.).
- Gelazain nagusiaren burutza, merezimenduen lehiaketa bidez, betetzeko deialdia. Izangai onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda (28. or.).

H SAILA:

Bestelako testu arau-emaileak:

- 2/2019 Foru Lege Dekretua, maiatzaren 15ekoa, zeinaren bidez onesten baitira Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko langileen arloko neurri batzuk. Batzorde Iraunkorrak baliozkotu du (29. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Huerta de Peralta enpresako plantillaren grebarako oinarrizko eskubidearen balizko urraketari buruzko txostena, Nafarroako Arartekoaren Erakundeak egina.

Nafarroako Parlamentuko Batzorde Iraunkorak, 2019ko apirilaren 8an eginiko bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Jasotzat ematea Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren Erakundeak egindako txostena, Huerta de Peralta enpresako plantillaren grebarako oinarrizko eskubidearen balizko urraketari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2019ko apirilaren 8an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza.

Huerta de Peralta enpresako plantillaren grebarako oinarrizko eskubidearen balizko urraketari buruzko txostena

AURKIBIDEA

- I.** Sarrera. Txostenaren arrazioai eta xedea (2. or.).
- II.** Metodologia (3. or.).
 - 2.1. Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuari informazioa eskatzea (3. or.).
 - 2.2. Huerta de Peralta enpresako batzordeari informazioa eskatzea (3. or.).
 - 2.3. Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuak emandako informazioa eta dokumentazioa (4. or.).
 - 2.4. Langileen protestei buruz Interneten eskura daitezkeen bideoak ikustea (8. or.).
- III.** Egitate aipagarrienak (8. or.).
- IV.** Araudia eta jurisprudenzia (10. or.).

4.1. Aplikatu beharreko araudia (10. or.).

4.2. Jurisprudenzia (10. or.).

V. Gogoetak eta konklusioak (13. or.).

I. SARRERA. TXOSTENAREN ARRAZIOA ETA XEDEA.

2019ko otsailaren 4an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, Podemos-Ahal Dugu-Orain Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Laura Lucía Pérez Ruano andreak eskatuta, honako erabaki hau hartu zuen:

“Nafarroako Arartekoari eskatzea txosten bat egin dezan Huerta de Peralta enpresako plantillaren grebarako oinarrizko eskubidearen balizko urraketari buruz”.

Eledunen Batzarraren erabakia 2019ko otsailaren 5ean igorri zitzaion Nafarroako Arartekoaren erakundeari, eta haren erregistroan alta eman zitzaion. Erabaki horri foru parlamentariaren aipatutako idazkia gehitu zitzaion, 2019ko urtarrilaren 31koa, zeinean honako honi buruzko txostena egiteko eskatzen baitzen:

“Ea Huertas de Peralta enpresako plantillaren grebarako oinarrizko eskubidea urratu den, informatzeko eskubidea eta grebarako eskubidea modu baketsuan baliatu dutenean 2019ko urtarrilean poliziaren errepresioa pairatu baitute, eta eragotzi egin baita enpresa batzordeak egiaztatu ahal izatea langileen legez kanpoko balizko ordezkatzeari”.

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarraren eskaera aztertuta, jo zen bat zetorrela Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legeko 16.d) artikuluan xedatutakoarekin. Arau horren arabera, Arartekoak txostenak egin ditzake bere eskumenean esparruan, zeina baita Konstituzioak eta Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobeztuari buruzko Lege Organikoak babestutako

eskubide eta askatasunak defendatzea eta hobeki babestea.

Eskaerak Huerta de Peralta enpresako plantillaren grebarako oinarrizko eskubidearen balizko urraketa aipatzen du, aipatutako enpresan grebak iraun zuen egunetan poliziak egindako jarduketaren ondorioz.

Eskaeraren muina da aztertzea ea, Nafarroako Foruzaingoak egindako jarduketaren ondorioz, langile batzuen grebarako oinarrizko eskubidea urratu ote zen. Horrenbestez, haren kontrolaren gaineko txosten bat egitea guztiz sartzan da Nafarroako administrazio publikoen jarduera ikuskatzeko Arartekoak dauzkan eskumenen barruan, Konstituzioak eta Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoak babestutako eskubide eta libertateak defendatzearen eta babestearen eginkizuna dela eta, Foru Komunitatearen eskumenen eremuan (Foruaren Hobekuntzako 18.ter 1. artikulua).

Edukiari dagokionez, txostena, sarrera honen ondotik, lau ataletan egituratuta dago: a) lanketarako jarraitutako metodologia, administrazio publiko eskudunari eskatutako informazioa eta administrazio horrek emandako informazioa; b) egitate garrantzitsuenen aipamena; c) kasuari aplikatzekoa zaion araudiaren eta jurisprudentziaren azterketa; eta d) ateratako ondorio eta konklusioak.

II. METODOLOGIA.

2.1. LEHENDAKARITZAKO, FUNTZIO PUBLIKOKO, BARNEKO ETA JUSTIZIAKO DEPARTAMENTUARI INFORMAZIOA ESKATZEA.

Nafarroako Parlamentuaren erabakia betetzeko eta, horrenbestez, Nafarroako Parlamentuak eskatutako txostena egiteko, erakunde honek, 2019ko otsailaren 6an, Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilariari eskatu zion informa zezan planteatutako gaiari buruz, gehienez ere hilabeteko epean.

Zehazki, Nafarroako Arartekoak egokitzen jo zuen Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilariari eskatzea honako informazio hau igor ziezaien:

A) Nafarroako Foruzaingoak Huerta de Peralta enpresan egindako jarduketei buruzko txostena, enpresako langileek egindako grebari dagokionez. Greba hori 2018ko abenduaren 26tik 2019ko urtarrilaren 22ra arte iraun zuen.

Hartara, eskatu zen honako alderdi hauei buruz informa zezan:

– Nafarroako Foruzaingoak grebalariei aurka egindako esku-hartzeak zein egunetan gertatu ziren.

– Jasota dauden esku-hartzeen kopurua.

– Esku-hartze horien deskribapena eta egitate erabakigarriak.

– Esku-hartzeen xedea.

– Erabilitako polizia-materiala.

– Poliziaren esku-hartzeetan lesionatutako pertsonen eta polizia-agenteen kopuruak.

– Ea neurriak hartu ote ziren eragozteko edo mugatzeko enpresa batzordeak egiazta zezan grebalariei balizko legez kanpoko ordezea.

B) Nafarroako Foruzaingoaren esku zeuden dokumentazioa eta txostenak, bai eta bideoak eta beste material batzuk ere, egitatei buruzkoak.

C) Beste edozein informazio, Nafarroako Parlamentuaren Eledunen Batzarrak egindako txosten-eskaera dela-eta interesekotzat jo daitekeena.

Informazioa eskatzeko idazki horretan, Nafarroako Arartekoak gogorarazi zuen “interesdunen datu pertsonalak ezagututa –Nafarroako Arartekoaren erakundeak legez haiearako sarbidea dauka–, erakunde honek erreserba guztiz konfidentzial bat egingen du; izan ere, gure aldetik honako konpromisoa hartzen dugu: datu horiek ez dira inon ere azalduko Departamentuak egiten duen txostenean, halako moduz non datuak ezagutzen diren pertsonen identifikazioa gordeko baita”.

2.2. HUERTA DE PERALTA ENPRESAKO BATZORDEARI INFORMAZIOA ESKATZEA.

Halaber, Nafarroako Parlamentuaren erabakia betetze aldera, idazki bat igorri zitzaion Huerta de Peralta enpresako batzordeari, egokitzen jotzen zituen oharrak edo alegazioak egin zitzaion edo txosten nahiz dokumentuak aurkez zitzaion, jakite aldera Nafarroako Foruzaingoaren jarduketek aipatutako enpresako plantillaren grebarako oinarrizko eskubidea urratu ote zituzten, greba horrek iraun zuen aldirian, hain zuzen ere 2018ko abenduaren 26tik 2019ko urtarrilaren 22ra.

Enpresa Batzordeak ez du ohar, alegazio, txosten edo bestelako dokumenturik igorri, txosten honen xede diren polizia-jarduketei buruz.

2.3. LEHENDAKARITZAKO, FUNTZIO PUBLIKOKO, BARNEKO ETA JUSTIZIAKO DEPARTAMENTUAK EMANDAKO INFORMAZIOA.

2019ko martxoaren 28an, Nafarroako Arartekoaren erakundeak Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilariaren txosten bat jaso zuen, zeinean honako hau jasozten baita:

“Nafarroako Parlamentuko lehendakari andreak egindako txosten-eskaera dela eta, erakunde horren informazio-eskaerari erantzunez, zeren eta jakin nahi baita Huerta de Peralta enpresako plantillaren grebarako oinarrizko eskubidea urratu ote zen (I19/02 espediente), Esku hartzeko Dibisioko buruak idatzitako txostena igortzen dizut, 2019ko otsailaren 22koa”.

Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilariak igorritako txostenean, Esku hartzeko Dibisioko buruak egindakoan, honako hau aipatzen da:

“AURREKARIAK

LAB erakunde sindikalak, Huertas de Peralta enpresako lan-gatazka zela-eta, greba mugagabea egiteko deia egin zuen. Greba hori 2018ko abenduaren 26an hasi eta 2019ko urtarrilaren 22an amaitu zen.

Langileen grebarako eskubidea bermatzeko – Espainiako Konstituzioaren 28.2 artikuluan jasota dago eskubide hori–, bai eta greba egin nahi ez zuten langileen lanerako eskubidea bermatzeko ere, eta enpresako zuzendaritzak eskatuta, Foruzaingoak polizia-dispositibo bat ezarri zuen bi eskubide horietaz libreki baliatu ahal izatea zaintzeko.

2018ko abenduaren 26an, barneko polizia-txosten bat idazten hasi zen IPDI1821218 erreferentzia-zenbakia zuena. Hartan, egunero honako hauek jaso ziren: dispositiboak zer lan egiten zuen, zerbitzuko egunen eta lan-txanden arabera, mugiarazitako polizia-baliabideak, gertatutako gorabeherak –diligentzia judizial edo administratiboak ekarri ote zituzten aipatuz– eta esku hartzen zuten agenteen artean lesionaturen bat ba ote zegoen.

Aipa daiteke ezen Foruzaingoan, zerbitzu bakoitzaren hasieran, eta azpimarra nabarmenagoa eginez Huertas de Peralta enpresan ezarritakoa bezalako dispositibo berezietan, alde zurreko bilera bat egiten dela, zeinean esku hartzen duten agenteen helburuak, eginkizunak eta aurrera eraman beharreko lanak zehazten baitira; betiere, honako hauek izaten dira nahitaez bete beharreko arauak: ordenamendu juridikoarekiko

eta herritarren eskubideekiko errespetua eta esku-hartzea ahal den txikiena izatea.

Ondoren zehazten ditugu eskatutako alderdi zehatzak:

POLIZIA-DISPOSITIBOA

2018ko abenduaren 26an, grebaren lehen egunean, Tafallako Foruzain Etxeko Herritarren Babeserako eta Arretarako Taldeko langileak Huerta de Peralta enpresako sarbidera joan ziren, aipatutako helburuarekin, alegia, greba egin nahi zuten langileen grebarako eskubidea bermatzea eta greba egin nahi ez zutenen lanerako eskubidea bermatzea.

Bertan, 50 pertsona inguru daude, horietako batzuk peto horiekin jantzita eta grebarako dei egiten zuen sindikatuaren (LAB) banderekin; pertsona horiek sarrera nagusian jarri ziren, greba egin nahi ez zuten langileak, autoz zein oinez, enpresara sar zitezen eragozten saiatzeko; hartara, izan ere, langile horiek eta enpresara sartu nahi zuten kamioietako eta beste ibilgailu batzuetako langileek lanerako eskubideaz libreki baliatu ahal izatea eragozten zuten.

Bertaratutako foruzainek, aipatutako helburua betetzeko xedez, euste-lerro bat osatu zuten, enpresarako sarbidea libre utzi ahal izateko, baina kontzentratutako pertsonak aurka eta bultzatzen egiten zieten, eta enpresara sartu nahi zuten ibilgailuen kontra ere bulkatu zituzten, foruzainen integritate fisikoa arriskuan jarritz.

Hori ikusita, Esku hartzeko Dibisioko lantalde operatibo bat bertara joan zen Tafallako Foruzain Etxeko foruzainei babesa emate aldera, baina agenteen kopurua oraindik ere ez-nahikoa zen, kontzentratutako pertsonen buruberokeriazko jarrera eta maila oso handiak baitziren.

08:45ean, informatzailea bertara joanda, elkarrizketa bat izan zuen LAB erakunde sindikaleko ordezkari (...) andrearekin eta (...) jaunarekin, mintzakide jarduten baitzuten haiek, eta polizien presentziaren xedeari buruz eta bi aldeek (enpresa eta greba egiten ari ziren langileak) eskubideen jardute askea errespetatzeko betebeharrari buruz informatu zitzaizen.

Pertsona horiek emandako erantzuna ikusita – “jendea oso bero dago” eta “grebak honelakoak izaten dira” – Foruzaingoak segurtasuneko polizia-dispositiboa ezarri zuen, zeina denboran luzatu baitzen grebarako deialdia amaitu zen arte, alegia, 2019ko urtarrilaren 22ra arte.

Halaber, aipatu beharra dago ezen, greba osoan zehar, bertaratutako operatiboko buruak bi

pertsona horiengana jo zuela akordio eta konpromiso batera iristeko asmoarekin, grebarako eskubidea, lanerako eskubidea eta NA-660 errepidetik ibilgailuak libreki ibiltzeko eskubidea errespetatzeari dagokionez eta bertara joandako LAB erakunde sindikalen ordezkariak greba egin nahi ez zuten langileei gatazkari buruz informatzeko moduari dagokionez.

Kontzentratutako pertsonen artean nor zegoen, aipatutako ordezkariak hartutako konpromisoak ez ziren betetzen, eta hain zuzen ere LAB erakunde sindikaleko pertsona jakin batzuk bertan zeuden egunetan konpromiso horiek erabat urratzen ziren, eta ordena eta bake publikoa asaldatu egiten ziren, beren lanpostura sartu nahi zuten pertsonen lanerako oinarrizko eskubidea urratzen zen, eta asaldura handiagoko egoerak gertatzen ziren, bertaratutako agenteen aurkako areriotasuna areagotuz.

IZANDAKO ESKU-HARTZEEN KOPURUA

“Grebalarien aurkako Nafarroako Foruzaingoaren esku-hartzeak gertatu ziren egunak” alderdi zehatzari dagokionez, esan beharra dago grebak iraun zuen egun guztietan egon zela poliziaren esku-hartzea. Bertan egotea bera esku-hartze polizial bat da berez.

Alabaina, grebalarien aurkako esku-hartzea esaten denean poliziak indarra noiz erabili zuen adierazi nahi bada, esan beharra daukagu kontzentratutako pertsonak greba egin nahi ez zuten langileen lanerako oinarrizko eskubidea urratu zuten uneetan, erresistentzia aktiboa egin zuten uneetan, oldar larriren bat gertatu zen uneetan, beren eginkizunak betetzen ari ziren agenteen aurkako etsaitasun maila handi batekin batera, indarra erabili egin zela, baina betiere zorrotz bete kongruentziaren, egokitasunaren eta proportzionaltasunaren printzipioak. Nabarmendu beharra dago, halaber, polizien pairamen- eta tolerantzia-maila oso handia izan zela, ia jasanezinen mugaraino, eta une oro ahal zen esku-hartze txikiena egitera jo zela.

Aipatu beharra dago dispositiboak iraun zuen denbora guztian, eta arestian aipatutako oinarrizko eskubideak bermatze aldera, esku-hartze poliziala honako hauetan oinarritu dela:

- Euspen-barrerak eta -lineak osatzea.
- Greba egin nahi ez zuten langileen sarbidea eragozten zuten pertsonak enpresako sarreratik erretiratzea.
- Greba egin nahi ez zuten langileak hertsatzen zituzten pertsonak erretiratzea.

- Greba egin nahi ez zuten langileen lanerako eskubidea eragozte aldera enpresako sarbidean eserialdia egiten zuten pertsonak banaka erretiratzea.

- Enpresarako sarbidea blokeatuz eta greba egin nahi ez zuten langileen lanerako eskubidea eragotziz enpresan estrategikoki kokatutako ibilgailuak erretiratzea.

- NA-660 errepidetan trafikoa eta bide segurtasuna bermatzea; zehazkiago, hori kontzentratutako pertsonak eta grebarako eskubideaz baliatzen zuten langileek mozten zutenean.

- Ordena eta segurtasun publikoaren barruan, greba batzordeak greba egin nahi ez zuten langileei “lan-gatazkaren” egoerari eta haren arrazoiei buruz informatzeko eskubidea erraztea.

- Enpresaren, poliziaren eta LAB erakunde sindikaleko mintzakideen arteko bitartekaritza, normaltasuna, herritarren segurtasuna eta ordenamendu juridikoaren betetzea bilatze aldera.

- Legedi indarduna errespetatu ez den egoeretan diligentzia administratibo edo/eta penalak egitea.

ESKU-HARTZEEN DESKRIBAPENA ETA EGITATE ERABAKIGARRIAK

Egindako esku-hartze polizialak honela deskribatu izan dira:

Euspen-barrerak eta -lineak osatzea

Bertan kontzentratutako pertsonak enpresarako sarbidea ez blokeatzeko eta greba egin nahi ez zuten langileen lanerako eskubidea ez eragozteko, pertsona horiek toki jakin batean kokatu nahi izan ziren, balizate-zinta batez eta polizia-lerro batez zedarritutakoan. Inoiz ere ez zen urratu grebarako eskubideaz libreki baliatu nahi zuten langileen inongo eskubiderik.

Greba egin nahi ez zuten langileen sarbidea eragozten zuten pertsonak enpresako sarreratik erretiratzea

Polizia-lerro batez, modu pausatuta eta lasaian, atarirako sarbidea blokeatzen zuten pertsonatalde bat erretiratu nahi izaten zen, aurrez ahozko jarraibideak emanez bai erakunde sindikaleko mintzakideei, bai sarbidea blokeatzen zuten pertsonak beraiei ere.

Lan hori betetzerakoan lasaitasuna, ordena eta herritarren segurtasuna errespetatzen ez zenean –une batzuetan polizien aurkako oldarrak izan ziren, eta haiek bultzatu eta aurretik eraman zituzten–, poliziek beren burua behartuta ikusi

zuten indarra erabiltzera, polizia-lerro indartsuago bat osatu ahal izateko.

Greba egin nahi ez zuten langileak hertsatzen zituzten pertsonak erretiratzea

Informazio-piketeak greba egiteari eta haren arrazoiei buruz informatzera hurbiltzen ziren uneetan, hori errepidea (NA-660) okupatu gabe, enpresarako sarbideko atea blokeatu gabe edo beren lanpostura sartu nahi zuten langileak hertsatu gabe egiteko konpromisoa betez, informatzeko eskubidea normaltasun osoz bete ahal izan da.

Hori bai, hura egiten zenean errepidea (NA-660) moztuz edo okupatuz, enpresarako sarbidea blokeatuz, greba egin nahi ez zuten langileak beren lanpostura sar zitezzen eragotziz edo are langile horiek derrigortuz, beldurtuz edo irainduz, informazio-piketeko kideei jakinarazten zitzairen adostutakoa urratzen ari zirela, ez zirela langileen eskubideen baliatze askea ahalbidetzen ari eta derrigortzea edo beldurtzea ez zirela informazioa ematea. Hori zela eta, esaten zitzairen mezua eta kokapena aldatu beharra zutela edo, bestela, informazioa emateko erabili beharreko tokiraino erretiratuko zituztela; egoera hori, izan ere, behin baino gehiagotan gertatu zen grebak iraun zuen bitartean.

Greba egin nahi ez zuten langileen lanerako eskubidea eragozte aldera enpresako sarbidean eserialdia egiten zuten pertsonak banaka erretiratzea.

Kontzentratutako pertsonen enpresako sarbidean eserialdi bat egin eta langileak beren lantokiara edo ibilgailuak enpresara sartzera eragotzi eta ezinezko egin duten uneetan, Foruzaingoak banaka erretiratu ditu gorabeherako protagonista izan diren pertsonak eta beste kokapen batera eramanez; hain zuzen ere, kontzentrazioa egiteko ezarritako tokira.

Aipatzekoa da ezen, poliziaren esku-hartze horretan, esku hartu duten poliziek ostikadak, erasoak, beso-bulkadak eta abarrekoak pairatu zituztela; hitz batean, polizia-lana eragozten zuen erresistentzia aktiboa, kontzentratutako pertsonen jaurtikitako irainen pila handia ez aipatzeagatik.

Halaber, azpimarratu beharra dago eserialdiei erantzuteko egindako inongo esku-hartzetan ez dela inolako defentsa-bitartekorik erabili (poliziamakila) pertsonen eraso egiteko; bai, ordea, haiek mugiarazteko.

Enpresarako sarbidea blokeatuz eta greba egin nahi ez zuten langileen lanerako eskubidea

eragotziz enpresan estrategikoki kokatutako ibilgailuak erretiratzea

2018ko abenduaren 28an, greba egiten ari ziren langileen hurbilekoak ziren pertsona batzuek –horietako batzuk LAB erakunde sindikaleko ordezkariak ziren– bost ibilgailu estrategikoki kokatu zituzten enpresako sarbide nagusian, hura guztiz blokeatuz (bai oinezkoentzat bai gainerako ibilgailuentzat), beren lanpostura joan nahi zuten langileak edo enpresara sartu beharreko ibilgailuak (hornitzaileak eta bezeroak) sar zitezzen eragotziz, enpresa gerarazteraino.

Horren aurrean, poliziaren esku hartzea honako honetan zetzan: ibilgailuak eskuz mugitzea, ekarritako garabiak haiek enpresako sarbideetik erretiratu ahal izateko.

NA-660 errepidean trafikoa eta bide segurtasuna bermatzea; zehazkiago, hori kontzentratutako pertsonen eta grebarako eskubideaz baliatzen zuten langileek moztzen zutenean

Ezin konta ahala uneetan, kontzentratutako pertsonen NA-660 errepidea inbaditzen zuten, eta hura zenbaitetan moztetako iristen ziren, dela eserialdi bat eginez, dela gurpildun ibilgailuen trafikoa moztuz kartel eta banderaxoekin.

Une horietan, poliziaren esku-hartzea honako honetan zetzan: errepidea moztzen ari ziren pertsonen segurtasuna lehenestea eta ibilgailuen trafikoa geraraztea edo beste errepide batzuetatik bideratzea.

Behin trafikoa eta pertsonak segurtatuta (kontzentratutako pertsonen jokabideak argiro arriskuan jartzen baitzuten pertsonen bizitza, haiena ez ezik, ibilgailuek harrapatu ahal zituztelako, esku hartzen zuten agenteena ere), polizia-kordoi batez trafikoa moztzen ari ziren pertsonak erretiratu ziren, adierazitako kokaleku batera eramanez aldera.

Ordena eta segurtasun publikoaren barruan, greba batzordeak greba egin nahi ez zuten langileei “lan-gatazkaren” egoerari eta haren arrazoiei buruz informatzeko eskubidea erraztea

Bai informatzaileak, bai mugiarazitako agintari operatiboek akordio bat lortu nahi izan dute Greba Batzordeko ordezkariekin eta mintzakideekin, greba egiten ari ez ziren langileei informazioa emateko moduan konpromiso bat lortzeari begira.

Langileei informazioa modu seguru batez ematean zetzan konpromiso hori; hau da, errepidea (NA-660) ez mozte bertatik informazioa emateko, edo informazioa ematerakoan ez

blokeatzea enpresako sarbidea, eta informazioa ematea pertsonak derrigortu edo beldurtu gabe.

Bigarren egunean, informazio-ematea segurtasun handiagoz egin zedin bermatzeko, polizia berak autoei eta gainerako ibilgailuei adierazten ziren non geratu behar zuten informazioa jasotzeko.

Nabarmendu beharra dago konpromiso hori egun askotan ez zutela errespetatu greba-batzordearen ordezkariak, eta zehazkiago LAB erakunde sindikaletik bertaratu ziren kideak; izan ere, horien asmoa egoerari eta grebaren arrazoiari informatzeaz beste bat zen. Haien jokabidea izan zen greba egin nahi ez zuten langileak derrigortzea, eta haien aurkako irain eta deskalifikazioak botatzera ere iritsi ziren, errepidea eta enpresako sarbidea une askotan mozteaz gainera.

Hori dela eta, ordezkariak eta mintzakideei jakinarazi zitzaizkien ez zirela betetzen ari langileei adostutako moduan informazioa emateko konpromisoa, eta aurreko paragrafoan deskribatutakoa bezalako jokabideak berekin ekartzen dutela segurtasuna lehenestea; hartara, eskatu zitzaizkien informazioa emateko modua adostu bezala bete zezatela.

Enpresaren, polizia eta LAB erakunde sindikaleko mintzakideen arteko bitartekaritza, normaltasuna, herritarren segurtasuna eta ordenamendu juridikoaren betetzea bilatze aldera

Une oro, ordezkariak eta mintzakideei informatu zitzaizkien enpresako zuzendaritzarekin edozein gairi buruz hitz egiteko, polizia balia zezaketela normaltasuna bilatze aldera, bera baita herritarren segurtasunaren eta ordenamendu juridikoa betetzearen bermea.

Legedi indarduna errespetatu ez den egoeretan diligentzia administratibo edo/eta penalak egitea

Urratze penalak edo huts-egite administratibok egin diren egoeretan, diligentzia administratibo edo/eta penal banakatuak egin dira.

ESKU-HARTZEEN XEDEA

Txosten honen hasieran aipatu den bezala, polizia dispositiboaren helburua da grebarako eskubidea bermatzea greba egin nahi duten langileei, eta lanerako eskubidea bermatzea greba egin nahi ez duten langileei.

Esku-hartze guztiak ordenamendu juridikoa guztiz errespetatu egin dira, horixe izan baita xedea, eta segurtasun publikoa eta oinarrizko eskubide eta askatasunak osoki baliatu ahal iza-

tea bermatuz, betiere aurrez ezarritako helburua betetzeari begira.

ERABILITAKO MATERIALA

Foruzaingoak aurrera eramandako esku-hartzeetan, honako material hau erabili da:

- Erregelamenduzko uniformeak: Tafallako Foruzain Etxeko Herritarren Babeserako eta Arretarako Taldeari atxikitako agenteek balen aurkako txalekoa eta ordena publikoa babesteko kaskoa erabili dituzte, kontzentratutako pertsonak agenteen aurka oldartuko zirela aurreikusi den uneetan.

- Erregelamenduzko uniformeak: Esku hartzeko Dibisioari atxikitako agenteek traumen aurkako txalekoa eta ordena publikoa babesteko kaskoa erabili dituzte, kontzentratutako pertsonak agenteen aurka oldartuko zirela aurreikusi den uneetan.

- Polizia-makila, zeina erabili baita euste-marrak eta -barrerak indartzeko. Halaber, esku hartu zuten agenteen makila erabili zuten intentsitate handiko oldar, bultza eta erasoei aurre egiteko (grebak iraun zuen aldiko hiru eguneko hiru unetan: 2018ko abenduaren 26an eta 28an eta 2019ko urtarrilaren 18an), eta kontzentratutako pertsonak pairatu zuten haien erabilera; halere, makilak une oro kongruentzia, egokitasun eta proportzionaltasun printzipioak betez erabili ziren.

LESIONATUTAKO PERTSONEN ETA POLIZIA-AGENTEEN KOPURUAK

Greba iraun zuen egunetan, hiru pertsona lesionatu zituzten greba egiten ari ziren pertsonak, eta bai mobilizazioan parte hartzen ari ziren pertsonak, bai Foruzaingoko agenteek artatu zituzten.

Halaber, hamar izan ziren lesionatutako foruzainak: horietatik lauk lanerako ezintasuna ere izan zuten, eta lau horietatik bik iraupen luzekoa gainera.

GREBALARIEN BALIZKO LEGEZ KANPOKO ORDEZTEA ENPRESA BATZORDEAK EGIAZTA ZEZAN ERAGOZTEKO NEURRIAK HARTZEA

Argi eta garbi zehaztu beharra dago ezen inongo unetan ere ez zela inolako neurririk hartu Enpresa Batzordeak alderdi horren egiaztapena eragotzi edo mugatzeko; are gehiago, greba-batzordeak berak eta enpresako zuzendaritzak eskatuta, Esku hartzeko Dibisioko burua batzordearekin egon zen egiaztapen hori egiten zen bitartean, hala eskatu zitzaionean.

Aipatu beharrekoa da Foruzaingoak bitartekaritza- eta mintzakide-lanetan jardun zuela greba-batzordearen eta enpresako zuzendari-

tzaren artean, batzordeak berak, haren ordezkariak edo LAB erakunde sindikaleko kideek enpresako zuzendaritzari gauzaren bat komunikatu edo eskatu nahi ziotenean.

2.4. LANGILEEN PROTESTEI BURUZ INTERNETEN ESKURA DAITEZKEEN BIDEOAK IKUSTEA.

Erakunde honek Interneten dauden bideoak ikusi ditu, txosten honen xedeari erreferentzia egiten diotenak.

Ikusitako bideoak Interneteko honako helbide hauetan daude:

<https://www.youtube.com/watch?v=pe-sJxBcT5w> (LAB Sindikatuak argitaratua)

https://www.youtube.com/watch?v=ru3DnDjr_Ic (Ahotsa.info-k argitaratua)

<https://www.youtube.com/watch?v=xzyDjhb3epU> (Ahotsa.info-k argitaratua)

<https://www.youtube.com/watch?v=Vyl1ohVKB Lc> (Ahotsa.info-k argitaratua)

<https://www.youtube.com/watch?v=H-czrhMt4>(Ahotsa.info-k argitaratua)

<https://www.youtube.com/watch?v=lq5-1Akl6Uo> (ايناب سباب يبرغم-k argitaratua)

<https://twitter.com/labnafarroa/status/1086176344717905926?lang=bg> (LAB Sindikatuak argitaratua).

III. EGITATE AIPAGARRIENAK.

A) LAB erakunde sindikalak Huerta de Peralta enpresan greba mugagaberako deia egin zuen, langileen lan-baldintzak zirela eta. Greba horrek 2018ko abenduaren 26tik 2019ko urtarrilaren 22ra arte iraun zuen.

B) Enpresako zuzendaritzak eskatuta, Nafarroako Foruzaingoak polizia-dispositibo bat ezarri zuen, greba egin nahi ez zuten langileen lanerako eskubidea zaintzeko eta ibilgailuak enpresako instalazioetara errepidetik libreki sartu ahal izatea bideratzeko. Dispositibo horrek 2018ko abenduaren 26tik 2019ko urtarrilaren 22ra iraun zuen, grebak iraun zuen bitartean.

C) Grebaren lehen egunean, 2018ko abenduaren 26an, Tafallako Foruzain Etxeko Herritarren Babeserako eta Arretarako Taldeko kideak enpresaren sarreran egon ziren.

Foruzaingoaren txostenaren arabera, eta ikusitako bideoei jarraituz, greba egiten ari ziren hainbat langile enpresako sarrera nagusian jarri ziren,

greba egin nahi ez zuten langileak bertara sar zitezzen eragozteko, bai eta instalazioetara sartu nahi zuten kamioiak eta bestelako ibilgailuak pasatzea eragozteko ere.

Foruzaingoaren arabera, bertara joandako agenteek euspen-lerro bat egin zuten, enpresarako sarbidea libre uzteko, baina kontzentratutako pertsonak aurka eta bultzatzen egiten zieten, eta enpresara sartu nahi zuten ibilgailuen kontra ere bukatu zituzten, foruzainen integritate fisikoa arriskuan jarri.

Egitate horien aurrean, Nafarroako Foruzaingoak erabaki zuen Esku hartzeko Dibisioko lantalde operatiboa bertara joan zedin. Kontsultatutako bideo-irudietan, ikusten da foruzainek ahaleginak egiten dituztela grebalariek atzera egin dezaten, ibilgailuen enpresarako sarbidea libre uzteko. Bideo horietan ikusten da Esku hartzeko Dibisioko foruzainek beren makilak (borrak) erabili zituztela pertsona batzuen aurka, eta kolpe batzuk kontu daitezke, arintzat kalifika daitezkeenak, banderaxoen kontra eta pertsona batzuen hanketan joak.

Beste une batzuetan, bideoetan berriz ere ikusten da langileek ahaleginak egiten dituztela ibilgailuak enpresaren barruko aldera sar daitezen eragozteko; halaber, Foruzaingoko agenteak ikusten dira sarbidea libre uzten, borra-kolpe batzuk joaz eta pertsona batzuei bultzatzen eginez. Une jakin batean, ikusten da nola langile bat lurrera erortzen den. Eszenetan, nahiz eta tentsio-une nabarmenak erakusten dituzten, ez dago, erakunde honen ustez, gorabehera bereziki larritzat har daitezkeenik.

D) Grebaren hirugarren egunean, 2018ko abenduaren 29an, gertakari aipagarrienak izan ziren.

Bideoetan ikusten da ezen egun hartako goizaldean, grebalariek oztopatzen ari zirela ibilgailuak eta langileak enpresara sar zitezela, eta horretarako hainbat auto aparkatu eta eserialdi bat egin zutela, giza-harresi bat egin nahian.

Sindikatu deitzailearen bideoan honako esaldi hauek irakur daitezke: "Huerta de Peralta langileek enpresarako sarbidea moztu dute eta Foruzaingoak haien kontra kargatu du, eta 6 zauritu baino gehiago eragin ditu"; "Goizaldean (langileek) autoekin blokeatu dute enpresarako sarbidea"; eta "Grebalariek herri-harresi bat egin dute enpresarako sarbidea moztuz".

Halaber, bideoan ikusten da eremu hori Nafarroako Foruzaingoaren zinta batez balizatuta dagoela, enpresarako bidea zedarrizteko eta libre gera dadin.

Bideo-irudietan ikus daiteke nola eserialdian parte hartzen ari diren langile batzuk zutiarazten dituzten foruzainek, eta hanketatik eta besoetatik harturik beste toki batera eraman eta bertan uzten dituzten. Irudi horietan, ikusten da nola bi foruzainek lekualdatze hori egiten duten langile bat zorutik arrastaka eramanez.

Halaber, ikusten da pertsona bat (Enpresa Batzordeko burua zen) lurrean datzala, aieneka, eta aurpegian odola dariola, lurrean putzu ikusgarri bat egiteraino. Halaber, pertsona bat ikusten da lurrean, burusi batez estalirik, eta DYako anbulantziako langileek artatzen dutela.

Bideo berean, ikus daiteke Foruzaingoko agenteek mugitzen dituztela langileek enpresako ate nagusian jarritako ibilgailuak, eta arrapala duen garabi batean kargatzen dituztela.

E) Grebaren laugarren egunean, 2018ko abenduaren 29an, bideoek aukera ematen dute ikusteko nola goizalean langileek barrikada bat egin duten pneumatikoekin eta egurrezko paletekin, eta barrikada horrek errepidea zeharkatzen dutela, eta barrikada horri su ematen diotela. Horrekin, bide-zirkulazioa mozturik geratzen da.

Ez da ikusten Nafarroako Foruzaingoa esku hartzen duenik.

F) Grebako bederatzigarren egunean, 2019ko urtarrilaren 3an, bideoek aukera ematen dute ikusteko nola giza-harresi bat eta eserialdi bate egiten duten, enpresarako sarbidea eragozteko. Dozenaka pertsonak egiten dute hori, eta Foruzaingoa indar egiten du eta pertsona horietako bat erretiratu du, harresia desegiteko. Uneren batean, ikusten da bi pertsona lurretik arrastaka eramaten dituztela. Halaber, grebalari bat ikusten da lurrean etzanda, ondoezik; ezin izan dugu horren arrazoirik jakin. Halaber, ikus daiteke nola beste erregio batzuetako lider sindikalek "bertatik bertara" babesa ematen dieten grebalariei.

Bideoak deskribatzen duenaren arabera, langileek furgoneta bat sartu zuten enpresan eta sarre-razo oztopatzea lortu zuten.

G) Grebaren hamargarren egunean, 2019ko urtarrilaren 4an, bideoan ikusten denez, langile grebalariak enpresako sarrera nagusiaren kontrako aldean kokatu dira, eta haien aurrez aurre, errepidearen beste aldean, Esku hartzeko Dibisio-ko polizia dispositibo handi bat dago, aipatutako sarrera babestu eta grebalariak sartzea eragozten duena. Une jakin batean, langileek metro batzuk aurrera egiten dute, eta errepidea okupatzen dute, eta eserialdi bat egiten dute foruzainen aurrean,

metro gutxi batzuetara, eta haien aurkako oihuak egiten dituzte.

Ez da ikusten Nafarroako Foruzaingoa eserialdia egiten ari direnen aurka egiten duenik.

H) Bideoan ikusten denez, 2019ko urtarrilaren 18an, langileen eserialdi batez errepidea mozten da, eta Nafarroako Foruzaingoa ondoan dago. Egun horretan sindikatu deitzaileak honako salaketa hau egiten du: "foruzainen borra-kolpeak eta zauritaren bat". Foruzaingoa txostenean, bestalde, aipatzen da egun hartan polizia-makilak erabili zirela.

I) Gainerako egunetan, ez dago jasota aipatzeko moduko gorabeherarik egon zenik.

M) Nafarroako Foruzaingoa, bere txostenean, baieztatzen du agenteek indarra erabili zutela konzentratutako pertsonak greba egin nahi ez zuten langileen lanerako oinarritzko eskubidea urratu zutenean, edo erresistentzia aktibo bat, edo eraso larri bat egin zutenean, beren eginkizunetan ari ziren agenteen aurkako etsaitasun-maila handi batekin batera. Indarraren erabilpena, informatu denaren arabera, kongruentzia, egokitasun eta proportzionaltasun printzipioak zorrotz betez egin zen.

Txosten horren beraren arabera, polizia esku-hartzea hitzez hitz berriz aipatuko ditugun honako eginkizunetan oinarritu zen:

– Euspen-barrerak eta -lineak osatzea.

– Greba egin nahi ez zuten langileen sarbidea eragozten zuten pertsonak enpresako sarreratik erretiratzea.

– Greba egin nahi ez zuten langileak hertsatzen zituzten pertsonak erretiratzea.

– Greba egin nahi ez zuten langileen lanerako eskubidea eragozte aldera enpresako sarbidean eserialdia egiten zuten pertsonak banaka erretiratzea.

– Enpresarako sarbidea blokeatuz eta greba egin nahi ez zuten langileen lanerako eskubidea eragoztuz enpresan estrategikoki kokatutako ibilgailuak erretiratzea.

– NA-660 errepidean trafikoa eta bide segurtasuna bermatzea; zehazkiago, hori konzentratutako pertsonak eta grebarako eskubideaz baliatzen zuten langileek mozten zutenean.

– Ordena eta segurtasun publikoaren barruan, greba batzordeak greba egin nahi ez zuten langileei "lan-gatazkaren" egoerari eta haren arrazoiei buruz informatzeko eskubidea erraztea.

– Enpresaren, poliziaren eta grebarako deia egina zuen erakunde sindikaleko mintzakideen arteko bitartekaritza, normaltasuna, herritarren segurtasuna eta ordenamendu juridikoaren betezea bilatze aldera.

– Legedi indarduna errespetatu ez zen egoeretan diligentsia administratibo edo/eta penalak egitea.

N) Bideoak ikusita, erakunde honek ez du ondorioztatzen greba egiten ari ziren langileek inongo indarkeria fisikorik erabili zutenik Nafarroako Foruzaingoko agenteen aurka, beste polizia-agente batzuen aurka edo lanerako eskubideaz baliatu nahi zuten eta enpresara sartzen ziren langileen aurka. Bai egiaztatzen da grebalariek erresistentzia pasiboko metodoak erabili zituztela; esate baterako, eserialdiak, gorputza pisu hil bezala erabiltzea eserialdi horietan, besoekin elkarriz lotuz giza-harresiak egitea eta sarrera oztopatzea ibilgailuak edo beren gorputzak berak jarritik. Ez dugu ikusten langileek Poliziako agenteak kolpatzen dituztenik, ez eta haren aurkako eraso fisikorik ere... Grebalarien ekintzak ez zaizkie foruzainei zuzentzen (haien aurkako oihuak izan ezik); bilatzen dutena da pertsonak eta ibilgailuak ez daitezela enpresara sar.

Ñ) Tamalez, zaurituak izan direla jakin dugu.

Poliziaren arabera grebalarien artean hiru lesionatu izan ziren, bai eta hamar foruzain ere; azken horietatik lauk lanerako ezintasuna behar izan zuten, eta ezintasun-egoera hori luzerako da biren kasuan.

Grebarako deia egin zuen sindikatuaren aldetik, greba-egunetan zauritutako langileak gutxienez ere sei izanen liriteke.

O) Nafarroako Foruzaingoa txostenak dio neurri bakar bat ere ez zela hartu inoiz Enpresa Batzordeak langileen legez kanpoko balizko ordezkia egiazta zezan eragotzi edo mugatzeko. Emandako txostenean esaten da ezen, bai greba-batzordeak eskatuta, bai enpresako zuzendaritzak eskatuta, Esku hartzeko Dibisioko burua batzordeari lagun egin ziola egiaztapen horretan, halakorik eskatu zitzaionean.

P) 2019ko urtarrilaren 22an, lan-gatazkan hogeita zortzi egin eman ondoren, Huerta de Peralta enpresako greba amaitu zen. Sindikatu deitzaileak hedabideen aurrean adierazi zuen enpresako zuzendaritzak plantillaren aldarrikapen nagusiak onartuak zituela, eta baieztatu zuen “amaiera jartzen zitzaiola lan-gatazkari eta beste etapa bati hasiera ematen zitzaiola”.

IV. ARAUDIA ETA JURISPRUDENTZIA.

4.1. APLIKATU BEHARREKO ARAUDIA.

Txosten hau egiteko, Nafarroako Arartekoak honako araudi hau hartu du kontuan:

– Espainiako Konstituzioa.

– Nafarroako Poliziei buruzko azaroaren 19ko 23/2018 Foru Legea.

– Lan-harremani buruzko martxoaren 4ko 17/1977 Errege Lege Dekretua.

– Herritarren Segurtasuna Babesteari buruzko martxoaren 30eko 4/2015 Lege Organikoa.

– Segurtasun Indar eta Kidegoei buruzko martxoaren 13ko 2/1986 Lege Organikoa.

4.2. JURISPRUDENTZIA.

Konstituzio Auzitegiak zenbait epaitan adierazia du ezen oinarrizko eskubideak mugatzen edo murrizten dituzten polizia-neurriak Konstituzioaren arabera diren aztertzerakoan, neurri horien proportzionaltasunari erreparatu behar zaiola; horretarako, izan ere, egiaztatu beharra dago ea honako hiru betekizun edo baldintza hauek betetzen diren:

a) Ea hartutako murrizte- edo mugatze-neurria nahikoa den bilatzen den helburua lortzeko (neurria egokia edo aproposa den aztertzea). Bilatzen den helburuak izan behar du Konstituzioak bermatutako beste ondasun edo eskubide bat babestea; hori dela eta, hartutako murrizte- edo mugatze-neurriak ez badu balio ondasun edo eskubide horiek babesteko, neurri hori ez da ez egokia ez konstituzioaren arabera izanen.

b) Ea hartutako murrizte- edo mugatze-neurria beharrezkoa den, zeren eta beste neurri zentzudunagorik ez baitago xede hori eraginkortasun berdinarekin lortzeko (neurria beharrezkoa den aztertzea). Horrela, oinarrizko eskubide bat murrizteko edo mugatzeko neurri bat konstituzioaren aurkakoa izanen da baldin eta aukerako beste neurriren bat badago, zentzudunagoa, berdin eraginkorra dena bilatzen den xede edo helburua lortzeko.

c) Ea neurria, zorrotz hartuta, proportzionatua den; hau da, haztatua edo orekatua den, zeren eta hartatik interes orokorrerako onura edo abantaila gehiago baitakartza gatazkaren xede diren ondasun edo balioetarako kalteak baino (neurria proportzionala den aztertzea). Hartara, zenbat eta garrantzitsuagoa izan mugatutako edo murriztutako oinarrizko eskubidearen ukipen-maila, orduan eta handiagoa izanen da hari aurka egiten dioten

eta Konstituzioak bermatzen dituen ondasun edo eskubideetatik lortzen den onura; izan ere, horien babesa da ezarritako mugatze edo murriztearen arrazoa.

Proporzionaltasun printzipioak (zeinak egokitasuna eta beharra aztertzea biltzen baitu) Konstituzio Auzitegiaren hainbat epaitan landu da. Esate baterako, 90/2006 epaian, maiatzaren 4koan, zein-ean, elkarteari buruzko oinarritzko eskubidea murrizteko neurriak aztertzen badira ere, beste oinarritzko eskubide batzuk mugatzeari zabal dakizkiokeen gogoetak egiten baitira.

“Auzitegi honek jada adierazia du ezen proporzionaltasunaren printzipioa ez dela konstituzionaltasunaren kanon autonomo bat, baizik eta interpretazio-irizpide bat, zeinak bidea ematen baitu konstituzio-arau jakin batzuen balizko urraketak epaitzeko, eta, bereziki, oinarritzko eskubideak (Konstituzio Auzitegiaren martxoaren 28ko 55/1996 epaia, 3. oinarri juridikoa). Hartara, auzitegi honek aitortu izan du bilatzen den xedearen eta hura lortzeko erabilitako bitartekoen arteko proportzio ezak berekin ekar dezakeela Konstituzioaren ikuspegitik epaitzea, proportzio-ez horrek berekin dakarrenean Konstituzioak bermatzen dituen eskubideen gehiegizkoa edo beharrezkoa ez den sakrifizio bat (Konstituzio Auzitegiaren martxoaren 28ko 55/1996 epaia, 3. oinarri juridikoa eta hartan aipatutakoak). Elkartzeko eskubidearen baliatzea murrizteko neurriak eskatzekoa den proporzionaltasunaren epaia gainditzan duen ala ez konprobatzeko, egiaztatu beharra dago ea hark hiru baldintza hauek betetzen dituen: murriztea egokia ote den bilatzen den helburua lortzeko, hain zuzen ordena publikoa bermatzea pertsonentzako edo ondasunetarako arriskurik gabe; hura beharrezkoa ote den, hain zuzen ere helburu bera eraginkortasun berdinarekin lortzeko beste neurri zentzudunagorik ez zegoelako; eta, azkenik, zorrotz hartuta, proporzionatua ote zen, hartatik interes orokorrerako onura edo abantaila gehiago ekartzeagatik gatazkaren xede diren ondasun edo balioetarako kalteak baino (Konstituzio Auzitegiaren maiatzaren 8ko 66/1995 epaia, 5. oinarri juridikoa, eta azaroaren 13ko 265/2000 epaia, 8. oinarri juridikoa)”

Bestetik, polizia-neurriek langileen grebarako oinarritzko eskubidean –Konstituzioaren 28.2 artikuluan aitortutakoan– izan dezaketen eraginari buruzko azterketa berariazkoari dagokionez, Konstituzio Auzitegiak honako hau adierazia du otsailaren 17ko 37/1998 epaian:

“Bada, azterketa mugatuz askatasun sindikalerako eta grebarako eskubideetara, hasi beharra dago gogoratuz, alde batetik, bi eskubide horien

artean lotura estu bat badagoela, eta, bestetik, Espainiako Konstituzioaren 28.2 artikuluan aitortutako grebarako eskubideak “berekin dakarrela besteei eskatzea grebari atxikitzeko eta, lege-esparruaren barruan, xede horretarako zuzendutako baterako ekintzetan parte hartzeko” (Konstituzio Auzitegiaren 254/1988 epaia, 5. oinarri juridikoa; eta Konstituzio Auzitegiaren 71/1992 eta 17/1995 autoak), edo, beste hitz batzuek esanda, “hirugarren elkartasuna lortzeko” (Konstituzio Auzitegiaren 123/1983 epaia, 4. oinarri juridikoa). Azken batez, grebarako eskubideak “hari buruzko zabalkundea egiteko eta informazioa emateko eskubidea” biltzen du (Konstituzio Auzitegiaren 332/1994 epaia, 6. oinarri juridikoa, Konstituzio Auzitegiaren 333/1994 eta 40/1995 epaietan berretsia), eta eskubide horren funtsezko edukian “haren zabalkundea egiteko eta hari buruzko publizitatea egiteko” eskubidea sartzen da (Konstituzio Auzitegiaren 158/1994 autoa). Azken auto horrek dioen bezala, jada adierazitako 17/1977 Errege Lege Dekretuaren 6.6 artikulua aipatuz, “greban parte hartzeko errekerimendu baketsua” Espainiako Konstituzioaren 28.2 artikulua aldarrikatzen duen eskubidearen zati bat da.

Egiazki, ezinbestez hala behar baitu, publizitate “baketsuaz” ari gara (aipatutako 6.6 artikulua), eta horrek esan nahi du ezin dela inolaz ere derrigortzerik, beldurtzerik, mehatxurik edo inongo indarkeria-ekintzarik egin (guztien ordez, Konstituzio Auzitegiaren 332/1994 epaia, 6. oinarri juridikoa, eta 137/1997 epaia, 3. oinarri juridikoa); hori dela eta, grebarako eskubideaz baliatu nahi ez duten langileen askatasuna errespetatu beharra dago (Konstituzio Auzitegiaren 158/1994 autoa), eta askatasun hori berariaz aitortuta dago 17/1977 Errege Lege Dekretuaren 6.4 artikuluan. Agerikoa da ezen greba zabaltzeko derrigortze psikologikoa edo presio morala erabiltzen dituen Konstituzioak babestutako esparruaren horretatik kanpo jartzen duela bere burua, bai eta Espainiako Konstituzioaren 28.2 artikulua aitortzen duen eskubidearen baliatze legitimoaz kanpo ere. Alde batetik, lan egiten jarraitzeko gainerakoek daukaten askatasuna mugatzen duela, eta, bestetik, Konstituzioak babestutako beste ondasun eta eskubide batzuetan eragina duela; esate baterako, pertsonen duintasuna eta integritate fisiko eta moralerako eskubidean –Espainiako Konstituzioaren 10.1 eta 15. artikulua– Konstituzio Auzitegiaren 2/1982 epaiaren 5. oinarri juridikoan adierazi zen bezala, elkartzeko eta manifestatzeko oinarritzko eskubidearen mugei dagokienez; horien doktrina, izan ere, grebarako eskubidearen mugei aplikatu zaie, besteak beste Konstituzio Auzitegiaren 332/1994

epaian, 6. oinarri juridikoan, eta 137/1997 epaian, 3. oinarri juridikoan; eta Konstituzio Auzitegiaren 71/1992 eta 158/1994 autoetan.

(...)

Hala eta guztiz ere, egia da, halaber, ezen, ezin dela, printzipioz, errotik ukatu aukera egon dadila, inguruabar jakin batzuetan eta behar diren bermeekin, hemen epaitutakoa bezalako kontrolneurriak erabiltzea, herritarren segurtasunaren eta eskubide eta askatasunen baliatze librearen babesaren nahasteak prebenitze aldera. Kasu honetan, Eusko Jaurlaritzaren ordezkartzak argazkiak ateratzea eta filmatzea justifikatu nahi du greba orokorrerako deialdiak daudenean desordena publikoak ohikoak direlako, eta gehitzen du desordena horiek egonen zirela jakina zela 1993ko urtarrilaren 27an egindako greba-egun hartan, zeren eta, alegatzen duenaren arabera – nahiz eta, Lan arloko Epaitegiaren epaiak nabarmentzen duen bezala, Eusko Jaurlaritzak ez zuen proba-jarduerarik batere egin hura ziurtatzeko–, egun hartan bertan jada halakoak gertatuak baitziren Donostiako zenbait tokitan.

Laburbilduz, datu horiek ikusita, ondoriozta daiteke kasu honetan Konstituzioaren arabera legitimoa den ondasun bat bazegoela, nola baitzen herritarren eskubideak eta askatasunak babestea eta herritarren segurtasuna zaintzea, zeinak, printzipioz, prebentzio-kontrolko neurri bat hartzea justifika baitezake. Hala eta guztiz ere, gure epaian konklusio bat lortzeko aztertu behar duguna da ea, aipatu berri dugun bezala, grebarako eskubidea murrizteko neurri zehatz hori Konstituzioaren arabera proportzionatua den, kasuaren inguruabar berariazkoak eta hura aplikatzeko hartutako berme zehatzak ikusita.

8. Izan ere, Auzitegi honen doktrinaren arabera, proportzionaltasunaren printzipioaren betetze zorrotzak determinatzen du oinarritzko eskubideak murrizteko edozein neurriren konstituzionaltasuna. Hala eta guztiz ere, ez da bidezkoa hemen xehetasun guztiekin errepikatzea Auzitegi honek aipatutako printzipioari buruz duen doktrina (guztientzatik, Konstituzio Auzitegiaren 66/1995, 55/1996 eta 207/1996 epaiak eta haietan aipatutakoak; halaber, besteak beste, Konstituzio Auzitegiaren 37/1989 epaia, Eusko Jaurlaritzaren alegazio-idazkian aipatutakoa, eta 66/1991 epaia).

Hemen garrantzia duten eraginetarako, nahikoa da gogoraraztea ezen, Konstituzio Auzitegiaren 66/1995 epaiak, 5. oinarri juridikoan, 55/1996 epaiak, 6, 7, 8 eta 9. oinarri juridikoetan, eta 207/1996 epaiak, 4.e) oinarri juridikoan, laburbiltzen duten bezala, oinarritzko eskubide bat murriz-

teko neurri batek proportzionaltasunaren epaia gainditzen duen konprobatzeko, egiaztatu beharra dagoela ea honako hiru betekizun edo baldintza hauek betetzen dituen; ea neurri horrek bilatzen den helburua lortzeko gai den (egokitasunaren epaia); eta, horretaz gainera, beharrezkoa den, helburu hori eraginkortasun berarekin lortzeko neurri zentzudunagorik ez egoteari dagokionez (beharraren epaia); eta, azkenik, neurria haztatua eta orekatua den, hartatik interes orokorrerako onura edo abantaila gehiago ekartzeagatik gatazkaren xede diren ondasun edo balioetarako kalteak baino (proportzionaltasunaren epaia, zorrotz hartuta).

Eragozpenik ez dago onartzeko ezen, printzipioz, irudiak grabatzea herritarren beste eskubide eta askatasun batzuen baliatzea arriskuan jartzeko gai diren desordenak prebenitzeko helburua lortzeko gai den neurri bat izan daitekeela, eta, halaber, neurri hori gai dela arau-hauste penalak izan daitezkeen egitateak jasotzeko; eta organo judizialek frogabide moduan har ditzakete grabazio horiek, behar diren kautelekin (esate baterako, Konstituzio Auzitegiaren 190/1992 epaia, 3. oinarri juridikoa, grabazio magnetofonikoei buruz ari dela).

Baina aurrekoa onar badaiteke ere, aitzitik ezin da ikusi ezen, kasu honetan eta gertatzen diren inguruabarrei erreparatuta, greba zabaldu nahi eta haren publizitatea egin nahi zutenek jarduera grabatzea ezinbesteko neurria eta neurri justifikatua zenik proportzionaltasunaren ikuspegitik, ez proportzionaltasunaren zentzu orokorrean, zeinak, Segurtasun Indar eta Kidegoei buruzko martxoaren 13ko 2/1986 Lege Organikoaren 5.2.c) artikularen arabera, polizia-jarduketa ororen buruan egon behar baitu, baizik eta oinarritzko eskubidearen sakrifizioaren proportzionaltasuna deitu dugun konstituzionaltasunaren-epaiaren zentzu berariazkoan (guztientzatik, Konstituzio Auzitegiaren 28/1983 epaia).

Izan ere, beste behin abiapuntuak izan behar du egiaztatzea ea greba zabaltzeko eta haren publizitatea egiteko jarduerak une oro modu baketsuan garatu ziren, lege-esparruaren barruan, erabateko normaltasunez eta delitutzat jo daitezkeen inongo egitaterik gertatu gabe. Deitutakoa greba orokor bat izatearen datuak –haren zilegitasun konstituzionala dela-eta jada erabakia hartua du Auzitegi honek (Konstituzio Auzitegiaren 36/1993 epaia, 3. oinarri juridikoa)– ez du aldatzen aurreko egiaztapena, are gutxiago kontuan hartzen bada alegatutako ordenaren nahasteak, hiriko beste toki batzuetan gertatuak, ez direla frogatu izan. Inguruabar horiek, informazio-

piketearen jarduera prebentzio-neurri gisa filmatzeko erabakiak, printzipioz Konstituzioaren ikuspegitik posiblea bada ere, bereziki justifikatuta egon behar du, batez ere aplikatutako bermeei erreparatuta, hertsiki beharrezkoak ez diren edo desproporzionatuak diren eraginak saihesteko.

Bada, berme horiek, berretsi dugunez, ez ziren nahikotasunez gertatu kasu honetan; lehenbizi, zeren eta piketeko kideek hura eskatu bazuten ere, ez baitzen neurria justifikatu. Izan ere, Auzitegi honek adierazia duenaren arabera “oinarrizko eskubideen baliatzerako murriztapenak berariazko kausa bat behar du, eta hura justifikatzen duen egitatea edo arrazoia esplizitatu beharra dago, hartzaileek jakin dezaten zein izan ziren beren eskubidea sakrifikatzeko izan ziren arrazoiak (Konstituzio Auzitegiaren 52/1995 epaia, 5. oinarri juridikoa). Bigarrenik, ez zen balizko aukerako neurri gisa onartu parte-hartzaileek eskaini zuten grebaren publizitatea egiteko ekintzan parte hartutakoen identifikazio pertsonalarena. Bestetik, ez da daturik ematen ondorioztarazten duenik –indarkeria edo derrigortzea gertatzeko, eta, modu orokorragoan, eskubideen eta askatasunen baliatzea arriskuan jar zezaketen desordena gertatzeko arrisku argi, unekoa edo berehalakorik ez zegoenez– ez zela nahikoa izan ordena publikoko indarren efektibo kopuru garrantzitsuen presentzia (organo judizialek frogatutzat deklaritzen dute Ertzaintzaren zenbait patruila-auto bazeudela piketeko berrogeitik gora kideren aurrean), eta, aitzitik, aurreko xedea lortzeko ezinbestekoa zela greba zabaltzeko eta haren publizitatea egiteko jarduera baketsua etenik gabe eta modu jarraituan filmatzea. Azkenik, oso bereziki, nabarmendu beharra dago ezen egiaztatuta dagoela neurriaren proportzio-eza, baldin eta kontuan hartzen bada disuasio-eragin berezia duela eta, horrenbestez, grebarako eskubidea mugatzen duela, eta hori heldu dela une hartan filmazioak egiteko kasuei eta prozedurei buruzko legezko aurreikuspen berariazkorik ez egotetik – bereziki garrantzitsua da hori grabazioak kontserbatzeari, epaien esku jartzeari eta eskuratzeko eta deuseztatzeko eskubideei dagokienez–, alde batera utzita Datu Pertsonalen Tratamendu Automatizatua arautzen duen urriaren 29ko 5/1992 Lege Organikoan jasotako aurreikuspen orokorrak (Lege organiko horren aipamena Konstituzio Auzitegiaren 254/1993, 9. oinarri juridikoa, eta 143/1994, 7. oinarri juridikoa, epaietan aurki daiteke).

9. Egiazki, filmatzeak ez zuen berekin ekarri grebarako eskubidea guztiz erauzte, baizik eta haren baliatzearen murriztapen soil bat. Hala eta guztiz ere, kasuaren inguruabarrei erreparatuta

eta kontuan hartuta ezen, kasu horietan, zeinetan oinarrizko eskubide batez ari baikara –Konstituzioaren arabera aurretiko inongo komunikazioaren menpe ez dagoena eta mugatuta gertatzen dena polizia-jarduketa prebentibo batez–, “favor libertatis” deitutako interpretazio-irizpidearen arabera jokatu beharra dagoela (Konstituzio Auzitegiaren 66/1995 epaia, 3. oinarri juridikoa), beraz, ondoriozta daiteke irudiak etengabe hartzea neurri proportzio gabea izan zela haren bidez lortu nahi zen xedea lortzeari begira. Badirudi horixe onartzen duela Lan arloko Epaitegiaren epaiak neurri hori hartzearekin piketeekiko “gehiegizko arduraz eta zorroztasunaz” eta “mesfidantza argiaz” hitz egiten duenean, esanez, gainera, ez dituela ezagutzen “ez neurriaren arrazoia (...) ez eta (...) haren norainokoak ere”. Baina ez epai horrek, ez Justizia Auzitegi Nagusiaren Lan arloko Aretoak emandakoak ere, ez zuten grebarako eskubidearen eta desordena-egoerak eta beste eskubide eta askatasun batzuen aurkakoak prebenitzeko behararen arteko haztatze egokia egin, zeren eta arrazoitzen joan garen bezala, grebarako oinarrizko eskubidearen hain murriztaileak ez zeuden neurri batzuk bai baitzeuden, zeinak, aldi berean, egokiak baitziren desordenak saihestuko zirela eta herritarrek eskubideak eta askatasunak libreki baliatu ahalko zituztela segurtatzeko”.

Hori guztia dela eta, Konstituzio Auzitegiaren epai horrek baietsi egin zuen sindikatu batek aurkeztutako babes-errekurtsoa eta deklaratu zuen sindikatu deitzailearen askatasun sindikalerako eta grebarako oinarrizko eskubideak urratu zirela (Konstituzioaren 28.1 eta 2 artikulua).

V. GOGOETAK ETA KONKLUSIOAK.

Lehena. Huerta de Peralta enpesako Enpresa Batzordean gehiengoa zuen sindikatuak legez egin zuen laneko greba mugagaberako deialdia, langileen eskubideak aldezte aldera. Greba hori 2018ko abenduaren 26an hasi zen eta hogeita zortzi egunez iraun zuen, 2019ko urtarrilaren 22an amaitu baitzen.

Grebarako deialdiaren aurrean eta hura hasiko zela jakinda, enpresako zuzendaritzako Foruzaingoak esku har zezan eskatu zuen.

Nafarroako Foruzaingoak baiezkota eman zion eskaera horri, eta segurtasuneko polizia-dispositibo bat ezarri zuen. Dispositibo horrek, funtsean, enpresako atari nagusian jardun zuen laneko grebak iraun zuen egunetan.

Nafarroako Foruzaingoak dispositibo hori justifikatzen du esanez langileek grebarako zeukaten eskubidea zaindu beharra zegoela, bai eta

greba egin nahi ez zuten langileen lanerako eskubidea ere.

Bigarrena. Herritarren Segurtasuna Babesteari buruzko martxoaren 30eko 4/2015 Lege Organikoaren 4.1 artikulua honako hau ezartzen du, polizia-jardueren eta grebarako eskubidearen arteko erlazioari dagokionez:

“1. Lege honek administrazio publikoei eta, zehazki, agintariei eta herritarren segurtasunaren arloan eskumena duten gainerako organoei eta segurtasun-indar eta -kidegoei aitortutako ahalak eta ahalmenak gauzatzean printzipio hauek jarraituko dituzte: legezatasuna, tratu-berdintasuna eta bereizkeriarik eza, aukera, proportzionaltasuna, eraginkortasuna, efizientzia eta erantzukizuna, eta egikaritzea hori administrazioaren zein epaileen kontrolpean egongo da.

Zehazki, III. eta V. kapituluaren xedapenak oinarriko eskubideak eta askatasun publikoak bete-betean baliatzeko modurik mesedegarrienean interpretatu eta aplikatu behar dira, bereziki biltzeko eta manifestatzeko eskubideei, adierazpen-eta informazio-askatasunei, askatasun sindikalari eta grebarako eskubideari dagokienez”.

Hirugarrena. Enpresako atarian polizia-jarduketak bat egitea legitimoa da grebalariei grebarako eskubideaz baliatzea errespetatzen zaien bitartean, zeren eta eskubidea baitute, Konstituzio Auzitegiak gogorarazten duen bezala, modu bake-tsuan beste langile batzuei deitzeko greba egin dezaten (hori sarrerako atean egin daiteke sarbidea baldintzatu gabe), eta egiaztatu ahal baitute enpresara sartzen diren pertsonak “bertan lehenetik zeuden langileak direla” eta ez berariaz, grebalariek ordeztuko, kontratatutako hirugarrenak. Martxoaren 4ko 17/1997 Errege Lege Dekretuaren 6.6 artikulua ezartzen du “greba egiten ari diren langileek hari buruzko publizitatea egin dezaketela, modu baketsuan, eta funtsak bildu ahal dituztela, inongo derrigortzerik gabe”.

Laugarrena. Nolanahi ere den, poliziaren esku-hartze bat, laneko greba egin nahi ez duten langileek egiazki enpresara sartu ahal daitezen bideratzeko egina, lanerako eskubidea bete dezaten, legitimitzat ordenamendu juridikoarekin bat egiten duela ulertu beharra dago, zeren eta martxoaren 4ko 17/1997 Errege Lege Dekretuaren 6.4 artikulua grebalarien legezko betebeharen baten gisara ezartzen baitu greba egin nahi ez duten langileen lanerako askatasuna errespetatzearena. Konstituzio Auzitegiak aipatu duen bezala, greba zabaltzeko derrigortze psikologikoa edo presio morala erabiltzen dituenak Konstituzioak babestutako esparruaren hormetatik kanpo jartzen duela

bere burua, bai eta Espainiako Konstituzioaren 28.2 artikulua aitortzen duen grebarako eskubidearen baliatze legitimoaz kanpo ere.

Bosgarrena. Erakunde honek uste du ezen, oro har, Huerta de Peralta enpresako langileek grebarako eskubidea baliatu ahal izan zutela greba mugagabeak iraun zuen egun haietan. Langileak lanetik atera ahal izan ziren eta elkarretartzeak eta manifestazioak egin ahal izan zituzten enpresako sarbidean, gainerako langileen aurrean eta enpresako zuzendaritzaren aurrean ikusgarri egin ahal izan zuten greba-egoera eta lan arloko borroka, eta abar. Are gehiago, greban hogeita zortzi egunez egon ondoren, langileek, beren ordezkarien bitartez, akordio bat lortu zuten enpresako zuzendaritzarekin, zeinak, sindikatu deitzaileak hedabideen aurrean adierazi zuen bezala, beren interesak eta itxaropenak asebetu eta langatazkari amaiera eman baitzion.

Ikuspegi horretatik, eskubide kolektiboari buruzko bertsioan, Huertas de Peralta enpresako langileen grebarako eskubidea ezin da urratutzat eman orokorrean.

Seigarrena. Erakundeak egiaztatu du, hainbat bideo ikusiz eta une horietan gertatutakoari erreparatuta, langileek greba egin zutela pertsonak edo ondasunekiko indarkeriazko gertakariak izan gabe eta Nafarroako Foruzaingoko kideen aurka eraso fisikorik egin gabe.

Ikusten da ezen, une batzuetan, grebalariek oztopatu egin zutela pertsonak eta ibilgailuak enpresako instalazioetara sartzea, minutu batzuetan errepidea moztu zutela edo “erresistentzia pasiboa” izenez ezagutzen dena erabili zutela Poliziaren aurrean, batez ere eserialdiak eginez eta gorputza pisu hil baten gisara erabiliz edo langileen arteko kate bat osatuz enpresako sarbideko atean.

Bai ikusten da gertakari jakin bat, grebarako eskubideak babestuta ez dagoena, barrkada bat egin eta hari su eman zitzaionean errepidearen erdian.

Zazpigarrena. Poliziaren jarduketaren xedea izan zen beste langile eta ibilgailu batzuek oztopatzeko zuten enpresako instalazioetako sarbidea libratzea, eta esan daiteke proportzionala izan zela egin zen aldi guztietan.

Zortzigarrena. Hala eta guztiz ere, giza-harresia desegiteko pertsona batzuk lurretik arrastaka eramane ziren kasuetan, eta greba egiten ari ziren langileengan beharrik gabeko lesioak eragin zirenean, ezin da esan poliziaren jarduketa proportzionatua izan zenik.

Egitate horiek eskatuko lukete Nafarroako Foruzaingoak ikerketa bat egitea, oraindik egin ez badu, 2018ko abenduaren 28an gertatutakoei buruz; izan ere, egun hartan, langile bat ikusten da enpresa batzordeko burua) lurrean erorita, odola dariola eta aurpegian jasotako kolpe bategatik mina adieraziz; hedabide batzuen arabera, sudurra hautsia du eta ospitalera eraman behar izan zuten arreta jasotzeko.

Halaber, ikerketa bat egin beharko litzateke beste egitate batzuk direla eta; izan ere, egitate horietan langile batzuk lurrean erorita ageri dira polizia-jarduketa batean. Izan ere, neurriak hartu beharko liriteke gertatutakoen antzekoak errepika ez daitezen.

Nolanahi ere, polizia-jarduketa dela-eta kalte fisikoak pairatu zituzten grebalariek beren esku dituzte bide administratibo eta judizialak dauzkate, gerta daitezkeen erantzukizun administratiboak edo bestelakoak eskatzeko, baldin eta uste badute indarraren erabilera neurrigabea eta justifikaziorik gabea gertatu zela.

Bederatzigarrena. Nafarroako Foruzaingoaren txostenaren arabera, bai enpresako batzordeak eskatuta bai haren zuzendaritzak eskatuta, Esku hartzeko Dibisioko buruak batzordea lagundu zuen grebalarien legez kanpoko balizko ordezkapenak egiaztatzeke eginkizunetan, halakorik eskatu zitzaionean.

Grebarako eskubidearen zati bat da greba batzordeak edo sindikatu deitzaileko ordezkariak

egiaztatzea enpresako zuzendaritzak ez dituela kontratupeko langileak erabiltzen grebalarien legez kanpoko ordezkapenak egiteko, eta eginkizun hori erraztu egin beharra dago baldintza ego-kietan eta nahikotasunez, justifikaziorik gabeko mugarik gabe.

Martxoaren 4ko 17/1997 Errege Lege Dekretuaren 6.5 artikulua honako hau xedatzen du: "Grebak iraun bitartean enpresaburuak ezin izango ditu langile grebalaria ordeztu, grebaren berri eman zen unean enpresari lotuta ez zeuden langileekin; grebalaria ordeztu ditzake, berriz, artikulua honen 7. apartatua ezarritako betebeharrak betetzen ez direnean". 6.7 artikulua honako hau xedatzen du: "Grebak iraun bitartean, greba-batzordeak beharrezko zerbitzu-ematea bermatu behar du, pertsonen eta gauzen segurtasuna zaintzeko, nahiz lokalen, makinen, instalazioen, lehengaien eta bihar-etzi enpresako jarduera berriro hasteko beharrezkoa den beste edozein zerbitzuren mantentzeari eusteko". Hori dela eta, enpresara bere kabuz sartzeko ahalmena dauka.

Eta hori guztia jakinarazi behar diot Nafarroako Parlamentuari erakunde horrek egin digun txosten-eskariari erantzuteko.

Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuari txostenaren kopia bat helarazi zaio, ezagut dezan.

Iruñean, 2019ko martxoaren 27an

El Defensor del Pueblo de Navarra/Nafarroako Arartekoa: Francisco Javier Enériz Olaechea

Rozalejoko Markesaren higiezinan ikuskatzaileek esku hartzean, Iruñeko Alde Zaharreko bizilagunen oinarrizko eskubideen balizko urratzea gertatzeari buruzko txostena, Nafarroako Arartekoaren Erakundeak egina.

Nafarroako Parlamentuko Batzorde Iraunkorak, 2019ko apirilaren 8an eginiko bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Jasotzat ematea Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren Erakundeak egindako txostena, Rozalejoko Markesaren higiezinan ikuskatzaileek esku hartzean, Iruñeko Alde Zaharreko bizilagunen oinarrizko eskubideen balizko urratzea gertatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2019ko apirilaren 8an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Rozalejoko Markesaren higiezinan ikuskatzaileek esku hartzean, Iruñeko Alde Zaharreko bizilagunen oinarrizko eskubideen balizko urratzea gertatzeari buruzko txostena

AURKIBIDEA

- I.** Sarrera. Txostenaren arrazoia eta xedea (16. or.).
- II.** Metodologia (17. or.).
 - 2.1. Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuari informazioa eskatzea (17. or.).
 - 2.2. Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuak hasiera batean emandako informazioa (17. or.).
 - 2.3. Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamenturi berriz ere informazioa eskatzea (19. or.).
 - 2.4. Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuak emandako informazioa eta dokumentazioa (19. or.).
 - 2.5. Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuari informazioa berriz eskatzea eta hark dokumentazioa ematea (21. or.).
- III.** Jarduketaren deskribapen orokorra (21. or.).

IV. Araudia eta jurisprudentzia (22. or.).

4.1. Aplikatu beharreko araudia (22. or.).

4.2. Jurisprudentzia (22. or.).

V. Gogoetak eta konklusioak (23. or.).

I. SARRERA. TXOSTENAREN ARRAZOIA ETA XEDEA.

2019ko otsailaren 4an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, Podemos-Ahal Dugu-Orain Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Laura Lucía Pérez Ruano andreak eskatuta, honako erabaki hau hartu zuen:

“Nafarroako Arartekoari eskatzea txosten bat egin dezan Rozalejoko Markesaren higiezinan ikuskatzaileek esku hartzean, Iruñeko Alde Zaharreko herritar eta bizilagunen oinarrizko eskubideen balizko urratzea gertatu izanari buruz”.

Eledunen Batzarraren erabakia 2019ko otsailaren 5ean igorri zitzaion Nafarroako Arartekoaren erakundeari, eta haren erregistroan alta eman zitzaion. Erabaki horri foru parlamentariaren aipatutako idazkia gehitu zitzaion, 2019ko urtarrilaren 31koa, zeinean honako honi buruzko txostena egiteko eskatzen baitzen:

“Herritarren eta, zehazki, Iruñeko Alde Zaharreko bizilagunen oinarrizko eskubideak urratu ote ziren ikuskatzaileek Rozalejoko Markesaren higiezinan esku hartzean; izan ere, 2019ko urtarrilaren 8tik herritar eta bizilagun horien zirkulazio-eskubidea nahiz oinarrizko bake eta bizikidetzara arauak murriztu ziren auzoan ezarritako polizia-dispositiboaren ondorioz”.

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarraren eskaera aztertuta, erakunde honek uste du eskabidea bat datorrela Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legeko 16.d) artikuluan xedatutakoarekin. Arau horren arabera, Arartekoak txostenak egin ditzake bere eskumenen esparruan, zeina baita Konstituzioak eta Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoak babestutako eskubide eta askatasunak defendatzea eta hobetzea.

Eskaeran aipatzen da Iruñeko Alde Zaharreko herritar eta bizilagunen konstituzio-eskubideen

balizko urratze bat egon zela polizia-dispositiboa hedatzearen ondorioz, foruzainek eta Nafarroako Gobernuko ikuskaritzako teknikariek Marqués de Rozajeloko higiezinean egindako esku-hartzearen ondorioz, hura hustu ondoren.

Txostenaren eskaeraren ardatza da herritarren kopuru zehaztu gabeko baten oinarritzko eskubideen balizko urratzea aztertzea, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak Rozajeloko Markesaren jauregian polizia-jarduketa bat egitearen ondorioz. Horrenbestez, haren kontrolaren gaineko txosten bat egitea guztiz sartzen da Nafarroako administrazio publikoen jarduera ikuskatzeko Arartekoak dauzkan eskumenen barruan, Konstituzioak eta Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoak babestutako eskubide eta libertateak defendatzearen eta babestearen eginkizuna dela eta, Foru Komunitatearen eskumenen eremuan (Foruaren Hobekuntzako 18.ter 1. artikulua).

Edukiari dagokionez, txostena, sarrera honen ondotik, lau ataletan egituratuta dago: a) lanketarako jarraitutako metodologia, administrazio publiko eskudunari eskatutako informazioa eta administrazio horrek emandako informazioa; b) Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuak emandako informazioari buruzko gogoetak; c) kasuari aplikatzekoa zaion araudiaren eta jurisprudentziaren azterketa eta d) ateratako ondorio eta konklusioak.

II. METODOLOGIA.

2.1. LEHENDAKARITZAKO, FUNTZIO PUBLIKOKO, BARNEKO ETA JUSTIZIAKO DEPARTAMENTUARI INFORMAZIOA ESKATZEA.

Nafarroako Parlamentuaren aipatutako erabakia betetzeko eta, horrenbestez, eskatutako txostena egiteko, erakunde honek, 2019ko otsailaren 6an, Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilariari eskatuz geroz, gehienez ere hilabeteko epean informazioa zezan planteatutako gaiari buruz.

Zehazki, Nafarroako Arartekoak egokitzen jo zuen Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilariari eskatzea honako informazio hau igor ziezaien:

A) Rozajeloko Markesaren higiezina ikuskatu zuten Nafarroako Gobernuko teknikarien esku-hartzearen ondorioz Nafarroako Foruzaingoak aurrera eramandako jarduketari buruzko txostena.

Zehazki, eskatu zen honako alderdi hauei buruz informatzeko:

– Rozajeloko Markesaren Jauregiaren inguruan egindako polizia-jarduketaren deskribapena eta egitate erabakigarriak.

– Nafarroako Foruzaingoaren esku-hartzeak zein egunetan gertatu ziren.

– Polizia-jarduketan eta inguru hartan ezarri zen polizia-dispositiboaren xedea.

– Neurririk hartu ote zen bertako bizilagunak beren etxebizitza partikularretara sar zitezien mugatzeko edo debekatzeko, eta neurri horien iraupena.

– Neurririk hartu ote zen herritarrak saltokietara edo lokaletara eta inguruetara sar zitezien mugatu edo debekatzeko, eta neurri horiek zenbat iraun zuten.

B) Nafarroako Foruzaingoaren esku zeuden dokumentazioa eta txostenak, bai eta bideoak eta beste material batzuk ere, egitateari buruzkoak.

C) Beste edozein informazio, Nafarroako Parlamentuaren Eledunen Batzarrak egindako txosten-eskaera dela-eta interesekotzat jo daitekeena.

Informazioa eskatzeko idazki horretan, Nafarroako Arartekoak honako hau gogorarazi zuen: “interesdunen datu pertsonalak ezagututa –Nafarroako Arartekoaren erakundeak legez haietarako sarbidea dauka–, erakunde honek erreserba guztiz konfidentzial bat egingen du; izan ere, gure aldeetik honako konpromisoa hartzen dugu: datu horiek ez dira inon ere azalduko Departamentuak egiten duen txostenean, halako moduz non datuak ezagutzen diren pertsonen identifikazioa gordeko baita”.

2.2. LEHENDAKARITZAKO, FUNTZIO PUBLIKOKO, BARNEKO ETA JUSTIZIAKO DEPARTAMENTUAK HASIERA BATEAN EMANDAKO INFORMAZIOA.

2019ko martxoaren 1ean, Nafarroako Arartekoaren erakundeak Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilariaren txosten bat jaso zuen, zeinean honako hau jasozten baitzen:

“Erakunde horren informazio-eskaerari erantzunez, Nafarroako Parlamentuko lehendakari andreak egindako txosten-eskaerari dagokionez, zeren eta jakin nahi baita Iruñeko Alde Zaharreko herritar eta bizilagunen oinarritzko eskubideak urratu ote ziren ikuskapeneko teknikariek Rozajeloko Markesaren higiezinean egindako esku-hartzearen ondorioz (119/03 espediente), Esku har-

tzeko Dibisioko buruak idatzitako txostena igorzen dizut, 2019ko otsailaren 22koa”.

Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilariak igorritako txostenean, Esku hartzeko Dibisioko buruak egindakoan, honako hau aipatzen da:

“AURREKARIAK

Iruñeko Instrukzioko 4. epaitegiak, 2019ko urtarrilaren 4ko autoaren bidez, ebatzi zuen Ikerketa Kriminalaren Arloko eta Informazio Dibisioko agenteak, Nafarroako Gobernuko Ondare Zerbitzuko teknikariek batera, Rozalejoko Markesaren Jauregia deitutako higiezinaren barrualdera sar zitezela, egiaztatzeko higiezin horretan obrak eginak ziren ala ez, eta, kasua bazen, haien norainokoa eta ondorioak, “haietatik pertsonentzat eta ondasunetarako izan daitekeen arriskuagatik eta arrisku horiek deuseztatzeko edo subsidiarioki gutxitzeko behar diren neurriak hartzeko; Nafarroako Gobernuak, gainera, prebentzio-neurri pertsonal eta material egokiak ezarri beharko ditu egiten diren jarduketek denboran iraun dezaten bermatze aldera”.

Aipatutako ebazpen judiziala betearazteko, Esku hartzeko Dibisioko dispositibo egokia ezarri zuen, ebazpen horren bidez erabakitakoa behar ziren segurtasun-baldintzekin bete zedin.

Dispositibo hori kasuko zerbitzu-aginduaren barruan sarturik dago, eta urtarrilaren 8ko 04:00etan hasi eta higiezinga segurtatzeko lanak amaitzen ziren unera arte iraun zuen; hain zuzen ere, 2019ko urtarrilaren 11ko 16:00etan amaitu ziren lan horiek.

Ondoren zehazten ditugu eskatutako alderdi zehatzak:

EGITATE ERABAKIGARRIEN DESKRIBAPENA

Dispositiboan parte hartu duten Foruzaingoko antolamendu-unitate desberdinen artean, Esku hartzeko Dibisioa dago, eta Esku hartzeko Dibisioko Esku-hartzeko Talde Operatiboak dira, beste lan batzuen artean, Nabarrieriako Plaza sokaz hesitzeaz arduratu direnak, hainbat puntutan; honako hauek dira puntu horiek:

- 1. Aldapa kalearen eta Carmen kalearen kantoia.*
- 2. Nabarrieriako Plazaren eta Mañueta kalearen kantoia.*
- 3. San José Plazatik Nabarrieriako Plazarako sarbidea.*

Hiru puntu horietan hedatutako Esku-hartze Talde Operatiboaren eginkizuna da eragozteko Nabarrieriako Plazaren barruko aldera sar dadin horretarako baimenik ez duen inor, hau da, etxebizitzetako bizilaguna ez den, plazan bertan establezimendu bat ez duen edo hartan lanpostua ez duen inor.

Aipatu beharrekoa da bere jomugara iristeko bidean plaza zeharkatu behar duen pertsona orok une oro egin ahal izan duela hori lasaitasun osoz, zeren eta iragateko murriztapena soilik ezarri baita higiezinga okupatzearen aldeko pertsonak talde gisa eta poliziekiko etsaitasunezko jarrerarekin bertaratu direnean.

NAFARROAKO FORUZAINGOAREN ESKU-HARTZEAK ZEIN EGUNETAN GERTATU ZIREN

“Nafarroako Foruzaingoareneko esku-hartzeak gertatu ziren egunak” alderdi zehatzari dagokionez, esan beharra dago polizia-dispositibo ezarrita egon zen egun guztietan egon zela poliziaren esku-hartzea. Tokian bertan egotea berez bada poliziaren esku-hartze bat, eta hark urtarrilaren 8ko 05:00etatik hasi eta 2019ko urtarrilaren 11ko 16:00ak arte iraun zuen.

Hori bai, esku-hartzeaz ulertzen baldin bada pertsonak Nabarrieriako Plazatik aske zirkula daitezzen murriztea, aipatu beharra dago une jakin batzuetan, higiezinga okupatzearen aldeko jendetza plazan dispositiboarekiko etsaitasunezko jarrera argiaz bertaratu zirenean, bertaratutako agenteek haien sarbidea murriztu zutela, eta plaza zirkulaziorako libre egon zela gainerako uneetan, bertan polizia-dotazio desberdinak hedatuta bazeuden ere.

Plazarako sarbidea honako une hauetan murriztu zen (eta ez erabat, zeren eta “gatazkaz” kanpoko bizilagunek polizia-hesiak normaltasun osoz zeharkatzen baitzituzten):

2019ko urtarrilaren 8an

- Sarbidea 05:00etatik 06:00etara murriztu zen, dispositibo ezartzen ari zelako.*
- Sarbidea 19:30etatik 21:00etara murriztu zen, komunikatu gabeko kalejira bat egiten ari baitzen, eta plazara sartu nahi zuten; ondoren, hedatutako agenteen aurkako istiluak izan ziren.*

2019ko urtarrilaren 9an

- Sarbidea 17:00etatik 20:30era murriztu zen, plazaren barruan deitutako prentsaurreko bat egin nahi baitzen; ondoren, hedatutako agenteen aurkako istiluak izan ziren.*

2019ko urtarrilaren 10ean

- 18:00etan Nabarrieriako Plazako polizia-dispositiboa altxatu zen, eta higiezina berriz okupatu nahi izanen zutela aurreikusita, polizia-dotazioak Iruñeko Katedralaren ondoko plazan kokatu ziren.

- Foruzaingoak pairatutako eraso zela eta, eta higiezina okupatzeko beste ahalegin bat egin baitzen, 19:15ean, Esku hartzeko Dibisioa Nabarrieriako Plazara sartu zen, eta hartarako sarbidea murriztu zien higiezina okupatzearen aldeko pertsona jakin batzuei eta polizia-dotazioekiko etsaitasunezko jarrerarekin zebiltzanekin; murriztapen hori 21:30era arte iraun zuen, gutxi gorabehera.

2019ko urtarrilaren 11n

- 16:00etan amaitutzat eman zen polizia-dispositiboa; hori dela eta, polizia Nabarrieriako Plazatik atera zen.

JARDUKETEN ETA DISPOSITIBOAREN XEDEA

Horretarako egindako zerbitzu-aginduan, haren helburuak ageri dira; honako hauek dira, hain zuzen:

- Epaitegiak emandako jarraibideak betetzea.
- Dispositiboko parte-hartzaile guztien segurtasuna bermatzea; halaber, eraikinaren barruan eta kanpoan zeuden pertsonen segurtasuna bermatzea.
- Aplikatzekoa den lege-araudia betetzen dela zaintzea.
- Okupatutako higiezinaren barruko zein kanpoko aldean ordenari eustea eta, kasua bazen, ordena berrezartzea.

SARBIDEA MUGATZEKO EDO DEBEKATZEKO NEURRIAK

Azaldutakoa berretsi beharra daukagu, alegia, inoiz ere ez zitzaizela plazara sartzea eragotzi bertako bizilagunei, eta bertako saltokietako jabe, langile, enplegatu edo bezeroei ere ez zitzaizela plazatik ibiltzea eragotzi, salbu eta desordena publikoak gertatzen ari ziren uneetan edo halakoak geratzeko ageriko aurreikuspenik dagoen uneetan.

Nabarmentzekoa da ezen harriak, botilak, txapliguak edo bestelako piroteknia-artefaktuak polizia-agenteei jaurtikitzen ari zitzaizkien bitartean bizilagunen bat bere etxebizitzara sartu nahi zuenean, Foruzaingoak, bere ezkutuak erabiliz, pertsona horiei bermatu diela beren etxebizitzetara joan ahal zitezela.

Azkenik, aipa daiteke ezen Foruzaingoan, zerbitzu bakoitzaren hasieran, eta azpimarra nabarmenagoa eginez txosten honen helburua dena bezalako dispositibo berezietan, alde aurreko bilera bat egiten dela, zeinean esku hartzen duten agenteen helburuak, eginkizunak eta aurrera eraman beharreko lanak zehazten baitira; betiere, ordenamendu juridikoarekiko eta herritarren eskubideekiko errespetua eta esku-hartzea ahal den txikiena izatea dira nahitaez bete beharreko arauak”.

2.3. LEHENDAKARITZAKO, FUNTZIO PUBLIKOKO, BARNEKO ETA JUSTIZIAKO DEPARTAMENTURI BERRIZ ERE INFORMAZIOA ESKATZEA.

2019ko martxoaren 5ean, Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuak emandako informazioa ikusita eta sortutako gaiari buruzko iritzia egokia emateko, erakunde honek departamentu horri honako dokumentazio hau igortzeko eskatu zion:

a) Iruñeko Instrukzioko 4. epaitegiaren 2019ko urtarrilaren 4ko autoaren kopia. Izan ere, auto hori aipatzen da poliziaren esku-hartzearen aurrekari eta oinarri gisa egindako txostenean.

d) Auto horren arrazoia Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eskaera, eskabide edo eskari bat baldin bada, kasuko dokumentazioaren kopia bat.

c) Poliziaren esku-hartze hori dela-eta haren aurkako desadostasuna azaltzen duten kexa, salaketa edo erreklamazioen –Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuak jasotakoan– kopia bat.

d) Poliziaren esku-hartzea dela-eta beren burua partikularki kaltetuta sentitu zuten eta kalteordain bat eskatu zuten herritarren ondare-erantzukizuneko erreklamazioen kopia bat.

2.4 LEHENDAKARITZAKO, FUNTZIO PUBLIKOKO, BARNEKO ETA JUSTIZIAKO DEPARTAMENTUAK EMANDAKO INFORMAZIOA ETA DOKUMENTAZIOA.

2019ko martxoaren 15ean, erakunde honek honako dokumentazio hau jaso zuen:

a) Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilariaren ofizio bat, dokumentazioa igortzekoa.

b) Aholkularitza Juridikorako Zerbitzuko zuzendariaren txosten bat, zeinean aipatzen baita ez direla igorri ez Iruñeko Instrukzioko 4. Epaitegia-

ren 2019ko urtarrilaren 4ko autoa, ez eta Aholkularitza Juridikorako Zerbitzuak aipatutako epaitegiari egindako eskaera ere.

c) Barneko zuzendari nagusiaren ofizio bat, zeinarekin batera Foruzaingoaren buruaren 2019ko martxoaren 6ko txosten bat igortzen baitu. Azken txosten horretan jakitera ematen da herritar batek 2019ko urtarrilaren 8an aurkeztutako erreklamazio bat badagoela.

Foruzaingoaren buruaren txostenarekin batera, honako hauek ageri dira:

– Herritar horrek aurkeztutako salaketa bat, zeinean, besteak beste kontatzen baita 2019ko urtarrilaren 8an, 12:00ak aldera, Nabarrerria kaletik zihoala, eta orduan Foruzaingoak polizia-furgoi batez sarbidea itxita zeukan toki batera iritsi zela, eta azalpenak eskatu zizkiola agente bati, jakite aldera zergatik ezin zen pasa, eta agente hark erantzun ziola hura polizia-jarduketa bat zela eta beste kale batetik joan beharra zuela.

– Foruzaingoaren Esku hartzeko Dibisioaren Unitatearen txosten bat, Barne Araubidearen Unitateari zuzendua, herritar batek aurkeztutako salaketa bati erantzuten ziona. Txosten horretan zehazten da kalea balizatze-zinta batez moztuta zegoela, eta agenteek sokaz hesitutako eremurako sarbide murriztua eta baimendua kontrolatzen zutela.

– Foruzaingoaren Esku hartzeko Dibisioaren Unitatearen txosten batek, Nafarroako Gobernuko Barne Zuzendaritzari zuzendua, herritar horren beraren salaketari buruzkoa. Txosten horretan honako hau esaten da:

- “Iragazki bat ezartzen ari zela hesian, Roza-lejoko Markesaren eraikinerako zerbitzu berezia zela eta. Iragazki horren xedea zen Iruñeko Nabarrerria Kalean bizi ez ziren edo bertan negozio bat ez zuten pertsonak sar zitezela eragozte”.

- “Polizia-balizarako zinta bat egotea, pasatzeko debekua oso argi uzten duten testuekin; gainera, kalearen alde batetik bestera jarrita dago. Murriztapen hori pertsona guztiek ulertu dute zerbitzuaren hasieratik; gainera, ordena publikoan espezializatutako agente uniformatuen presentziak debekua indartzen du”.

- Herritarra “ezin da pasatu zeren eta polizia-jarduketa baten barruan gaude, eta balizatze-zintatik aurrera eremu murriztua da, eta zinta horren bidez pasatzea mugatzen da; zirkulazioa une hauetan debekatuta dago hiriaren puntu honetan; zirkulatzen jarraitzeko aukerako bide batzuk erakusten zaizkio, kale paraleloak erabiliz (...). Gainera, ez digu inongo berariazko justifika-

ziorik ematen puntu horretatik pasatzeko beharrari eta aukerako bideak ez erabiltzeari buruz”.

- Herritarra “tematzen da, esanez pasatu nahi duela (...). Berriz esaten zaio une hauetan puntu horretan pertsonen eta ibilgailuen zirkulazioa murriztuta dagoela, eta informatzen zaio zein araudiren babesean ezartzen dugun zirkulaziorako murriztapen hori (Herritarren Segurtasuna Babesteari buruzko 4/2015 Lege organikoaren 17. artikulua)”.

- Polizia-lana “hesitzean eta iragaztean” datza.

– Foruzaingoko buruaren idazki bat, salataileari zuzendua, zeinean erreklamazio idazkiari erantzuten baitzaio. Idazki horretan, honako hau azaltzen da: “Aurtengo urtarrilaren 08ko une haietan, Iruñeko Nabarrerriako Plaza itxita zegoen poliziaren esku-hartze bat tarteko, zeren eta esku-hartze horrek eskatzen baitzuen hartatik ez oinezkorik, ez ibilgailurik ez pasatzea, eta behar bezala seinalizatuta, sokaz hesituta eta balizatuta zegoen, eragozte aldera bide publikoaren zati hartan poliziaren dispositiboaz kanpoko pertsonak egotea”.

– Beste herritar batek Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuari zuzendutako idazki bat. Nabarrerria kaleko etxabe batean helbidea zuen sozietate mugatu bat ordezkatzeko du eta ostalaritza-establezimendu baten titularra da; haren bidez, ondare-erantzukizuneko erreklamazio bat aurkeztu du, zerbitzu publikoen funtzionamendua dela eta, eta eskatzen du bidezko prozedura hasi eta 3.600 euroko kalte-ordaina eman dakiola, polizia-dispositiboak eragindako kalte-galerengatik.

Erreklamazio-egileak uste du polizia-jarduketak eta Nabarrerriako Plaza urtarrilaren 8a, 9a eta 10ean ixteak, eta gero, berriz, urtarrilaren 20an ixteak, aurreko eguneko okupazio berriaren ondoren, eta Nafarroako Gobernuak eraikinean gero egin duen esku-hartzeak eragin dutela “bezero bakar bat ere ezin iristea gure establezimendura. Plazara soilik sartu ahal ziren, modu gutxi-asko normalizatu batez, bertan bizi edo lan egiten zutela justifikatu zezaketen pertsonak”.

Honako hau gehitzen du: “demandatzaileak ez du zalantzan jartzen jarduketa publiko horren zilegitasuna, eta ez du aurrez suposatzen, noski, jarduketak dolozko asmoa duenik, baina Espainiako Konstituzioaren 106.2 artikuluan jasotako eskubidea lagun eta aipatutako arau orokor eta foru legeen babesean, ondare erantzukizuneko honako erreklamazio hau aurkeztu du, zeren eta uste baitu Nafarroako Gobernuaren jarduketak larriki kaltetu duela gure negozioa”.

Idazki horretan, erreklamazioa egiten duen sozietateak honako egitate hauek azaltzen ditu: “Polizia nazionalaren eta Foruzaingoaren polizia-hesi bikoitzaren ixteak, gure establezimendua kokatuta dagoen plazarako eta gure establezimendurako bertarako sarbide publikoa eragozten duen polizia-zinta bat egoteak galera handiak eragin dizkigu, eta errepikatuko balira eta denboran mantenduko balira gure negozioaren iraupena arriskuan jarriko lituzkete. Plaza ixtea erabaki judicial baten ondorioz gertatu da, eta hura Nafarroako Gobernuak berak eskatuta hartu da; horrenbestez, argi eta garbi geratzen dira nolako lotura dagoen Nafarroako Gobernuaren erabakiaren eta jarduketaren artean, poliziak publikoari plaza itxi diola eta horrek gure establezimenduaren salmentetan izan duen eragina, zeren eta baldintza normaletan bertara joaten zen jendea ezin izan baita ez plazara, ez tabernara iritsi”.

Halaber, honako hau aipatzen du: “Aipatutako egunetan (urtarrilaren 8, 9, 10 eta 20an) izandako fakturaziotik ondorioztatzen da ezen, antzeko egunetan zenbatetsitako batez besteko fakturazioen aldean, honako zenbateko hauek jaso gabe geratu gara, plaza ixtearen ondorioz: Urtarrilaren 8an: 850 euro; urtarrilaren 9an: 850 euro; urtarrilaren 10ean: 600 euro; urtarrilaren 20an: 1.400 euro”.

2.5 LEHENDAKARITZAKO, FUNTZIO PUBLIKOKO, BARNEKO ETA JUSTIZIAKO DEPARTAMENTUARI INFORMAZIOA BERRIZ ESKATZEA ETA HARK DOKUMENTAZIOA EMATEA.

2019ko martxoaren 18an, Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuari eskatu zitzaion arestian aipatutako honako dokumentazio hau urgentziaz bidaltzeko:

“a) Iruñeko Instrukzioko 4. epaitegiaren 2019ko urtarrilaren 4ko autoaren kopia. Izan ere, auto hori aipatzen da poliziaren esku-hartzearen aurrekari eta oinarri gisa egindako txostenean.

d) Auto horren arazoia Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eskaera, eskabide edo eskari bat baldin bada, kasuko dokumentazioaren kopia bat”.

Departamentu horri beste epe bat eman zitzaion dokumentazio hori igortzeko; epe hori 2019ko martxoaren 22an, ostiralez, amaitzen zen, 14:00etan.

Martxoaren 22an, emandako epea amaitu baino lehen, aipatutako dokumentazioa igorri zen.

III. JARDUKETAREN DESKRIBAPEN OROKORRA.

A) Iruñeko Instrukzioko 4. epaitegiak, 2019ko urtarrilaren 4ko autoaren bidez, baimena eman zuen, Nafarroako Gobernuak (Aholkularitza Juridikoaren Zerbitzuaren bitartez) eskatuta, Nafarroako Foruzaingoko agenteak, Nafarroako Gobernuko Ondare Zerbitzuko teknikariek batera, Rozalejo Markesaren Jauregia deitutako higiezinaren barrualdera sar zitezten, egiaztatzeko higiezin horretan obrak eginak ziren ala ez, eta, kasua bazen, haien norainokoa eta ondorioak, “haietatik pertsonentzat eta ondasunetarako izan daitekeen arriskuagatik eta arrisku horiek deuseztatzeko edo subsidiarioki gutxitzeko behar diren neurriak hartzeko; Nafarroako Gobernuak, gainera, prebentzio-neurri pertsonal eta material egokiak ezarri beharko ditu hartutako neurriek denboran iraun dezaten bermatze aldera”.

B) Poliziak Iruñeko Nabarrieriako Plazan egin dako esku-hartzea hiru egun eta erdiz luzatu zen, 2019ko urtarrilaren 8ko 05:00etatik 2019ko urtarrilaren 11ko 16:00etara.

C) Tarte horretan, Nafarroako Foruzaingok Iruñeko Nabarrieriako Plaza sokaz itxi zuen, honako puntu hauetan:

1. Aldapa kalearen eta Carmen kalearen kantoia.
2. Nabarrieriako Plazaren eta Mañueta kalearen kantoia.
3. San José Plazatik Nabarrieriako Plazarako sarbidea.

D) Gune horietan zabalduko Nafarroako Foruzaingoko talde operatiboen egitekoa zen eragozte Nabarrieriako Plazaren barrualdera sar zedila horretarako baimenik ez zuen inor.

E) Polizia-jarduketaren helburuak, Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuak adierazitakoaren arabera, honako hauek ziren:

- Epaitegiak emandako jarraibideak betetzea.
- Dispositiboko parte-hartzaile guztien segurtasuna bermatzea; halaber, eraikinaren barruan eta kanpoan zeuden pertsonen segurtasuna bermatzea.
- Aplikatzekoa den lege-araudia betetzen dela zaintzea.
- Okupatutako higiezinaren barruko zein kanpoko aldean ordenari eustea eta, kasua bazen, ordena berrezartzea.

Helburu horiek lortzeko, Nafarroako Foruzaingoak beharrezkoa den gutxieneko esku-harztearen printzipioa aipatzen du.

IV. ARAUDIA ETA JURISPRUDENTZIA.

4.1. APLIKATU BEHARREKO ARAUDIA.

Txosten hau egiteko, Nafarroako Arartekoak honako araudi hau hartu du kontuan:

- Espainiako Konstituzioa.
- Nafarroako Poliziei buruzko azaroaren 19ko 23/2018 Foru Legea.
- Herritarren Segurtasuna Babesteari buruzko martxoaren 30eko 4/2015 Lege Organikoa.
- Segurtasun Indar eta Kidegoei buruzko martxoaren 13ko 2/1986 Lege Organikoa.
- Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legea.

4.2. JURISPRUDENTZIA.

Konstituzio Auzitegiak zenbait epaitan adierazia du ezen oinarrizko eskubideak mugatzen edo murrizten dituzten polizia-neurriak Konstituzioaren araberrakoa diren aztertzerakoan, neurri horien proportzionaltasunari erreparatu behar zaiola; horretarako, izan ere, egiaztatu beharra dago ea honako hiru betekizun edo baldintza hauek betetzen diren:

a) Ea hartutako murrizte- edo mugatze-neurria nahikoa den bilatzen den helburua lortzeko (neurria egokia edo aproposa den aztertzea). Bilatzen den helburuak izan behar du Konstituzioak bermatutako beste ondasun edo eskubide bat babestea; hori dela eta, hartutako murrizte- edo mugatze-neurriak ez badu balio ondasun edo eskubide horiek babesteko, neurri hori ez da ez egokia ez konstituzioaren araberrakoa izanen.

b) Ea hartutako murrizte- edo mugatze-neurria beharrezkoa den, zeren eta beste neurri zentzudunagorik ez baitago xede hori eraginkortasun berdinarekin lortzeko (neurria beharrezkoa den aztertzea). Horrela, oinarrizko eskubide bat murrizteko edo mugatzeko neurri bat konstituzioaren aurkakoa izanen da baldin eta aukerako beste neurriren bat badago, zentzudunagoa, berdin eraginkorra dena bilatzen den xede edo helburua lortzeko.

c) Ea neurria, zorrotz hartuta, proportzionatua den; hau da, haztatua edo orekatua den, zeren eta hartatik interes orokorrerako onura edo abantaila gehiago baitakartza gatazkaren xede diren ondasun edo balioetarako kalteak baino (neurria

proportzionala den aztertzea). Hartara, zenbat eta garrantzitsuagoa izan mugatutako edo murriztutako oinarrizko eskubidearen ukipen-maila, orduan eta handiagoa izanen da hari aurka egiten dioten eta Konstituzioak bermatzen dituen ondasun edo eskubideetatik lortzen den onura; izan ere, horien babesa da ezarritako mugatze edo murriztearen arrazoia.

Proportzionaltasun printzipioak (zeinak egokitasuna eta beharra aztertzea biltzen baitu) Konstituzio Auzitegiaren hainbat epaitan landu da. Hartara, esate baterako, Konstituzio Auzitegiaren otsailaren 17ko 37/1998 epaiaren zortzigarren oinarri juridikoan, zeinak aurreko hainbat epai aipatzen baititu, honako hau esaten da:

“8. Izan ere, Auzitegi honen doktrinaren arabera, proportzionaltasunaren printzipioaren betetze zorrotzak determinatzen du oinarrizko eskubideak murrizteko edozein neurriren konstituzionaltasuna. Hala eta guztiz ere, ez da bidezkoa hemen xehe-tasun guztiarekin erreplikatzeko Auzitegi honek aipatutako printzipioari buruz duen doktrina (guztien-gatik, Konstituzio Auzitegiaren 66/1995, 55/1996 eta 207/1996 epaiak eta haietan aipatutakoak; halaber, besteak beste, Konstituzio Auzitegiaren 37/1989 epaia, Eusko Jaurlaritzaren alegazio-idazkian aipatutakoa, eta 66/1991 epaia).

Hemen garrantzia duten eraginetarako, nahikoa da gogoraraztea ezen, Konstituzio Auzitegiaren 66/1995 epaiak, 5. oinarri juridikoan, 55/1996 epaiak, 6, 7, 8 eta 9. oinarri juridikoetan, eta 207/1996 epaiak, 4.e) oinarri juridikoan, laburbiltzen duten bezala, oinarrizko eskubide bat murrizteko neurri batek proportzionaltasunaren epaia gairiditzen duen konprobatzeko, egiaztatu beharra dago ea honako hiru betekizun edo baldintza hauek betetzen dituen; ea neurri horrek bilatzen den helburua lortzeko gai den (egokitasunaren epaia); eta, horretaz gainera, beharrezkoa den, helburu hori eraginkortasun berarekin lortzeko neurri zentzudunagorik ez egoteari dagokionez (beharraren epaia); eta, azkenik, neurria haztatua edo orekatua den, hartatik interes orokorrerako onura edo abantaila gehiago ekartzeagatik gatazkaren xede diren ondasun edo balioetarako kalteak baino (proportzionaltasunaren epaia, zorrotz hartuta).”

Antzeko terminoak erabiltzen dira maiatzaren 4ko 90/2006 epaian, zeinean, elkarteari buruzko oinarrizko eskubidea murrizteko neurriak aztertzen badira ere, beste oinarrizko eskubide batzuk mugatzeari zabal dakizkiokeen gogoetak egiten baitira.

“Auzitegi honek jada adierazia du ezen proportzionaltasunaren printzipioa ez dela konstituzionaltasunaren kanon autonomo bat, baizik eta interpretazio-irizpide bat, zeinak bidea ematen baitu konstituzio-arau jakin batzuen balizko urraketak epaitzeko, eta, bereziki, oinarrizko eskubideak (Konstituzio Auzitegiaren martxoaren 28ko 55/1996 epaia, 3. oinarri juridikoa). Hartara, auzitegi honek aitortu izan du bilatzen den xedearen eta hura lortzeko erabilitako bitartekoen arteko proportzio ezak berekin ekar dezakeela Konstituzioaren ikuspegitik epaitzea, proportzio-ez horrek berekin dakarreanean Konstituzioak bermatzen dituen eskubideen gehiegizkoa edo beharrezkoa ez den sakrifizio bat (Konstituzio Auzitegiaren martxoaren 28ko 55/1996 epaia, 3. oinarri juridikoa eta hartan aipatutakoak). Elkartzeko eskubidearen baliatzea murrizteko neurriak eskatzekoa den proportzionaltasunaren epaia gainditzen duen ala ez konprobatzeko, egiaztatu beharra dago ea hark hiru baldintza hauek betetzen dituen: murriztea egokia ote den bilatzen den helburua lortzeko, hain zuzen ordena publikoa bermatzea pertsonentzako edo ondasunetarako arriskurik gabe; hura beharrezkoa ote den, hain zuzen ere helburu bera eraginkortasun berdinarekin lortzeko beste neurri zentzudunagorik ez zegoelako; eta, azkenik, zorrotz hartuta, proportzionatua ote zen, hartatik interes orokorrerako onura edo abantaila gehiago ekartzeagatik gatazkaren xede diren ondasun edo balioetarako kalteak baino (Konstituzio Auzitegiaren maiatzaren 8ko 66/1995 epaia, 5. oinarri juridikoa, eta azaroaren 13ko 265/2000 epaia, 8. oinarri juridikoa)”.

Bestetik, Administrazio Publikoaren ondare-erantzukizunaren azterketa jurisprudentzialari dagokionez, esan beharra dago errepikatutako jurisprudentzia bat badagoela (esate baterako, Auzitegi Gorenaren 2006ko ekainaren 27ko epaia), zeinak, ondare-erantzukizun hori badagoen ala ez esateko, ezartzen baitu nahitaez honako baldintza hauek bete behar direla:

“a) Kalte-galeraren errealitate efektiboa, ekonomikoki ebaluagarria eta banakakoa, pertsona bati edo pertsona talde bati dagokienez.

b) Erreklamazio-egileak ondarean pairatutako kaltea edo lesioa zerbitzu publikoen funtzionamendu on edo txarraren ondoriozkoa izatea, kausa-ondorioa erlazio batean, kausaren loturaren aldaketan eragin dezaketan elementu arrotzik izan gabe.

c) Ezinbestekorik ez gertatzea.

d) Azpiegiturak. Erreklamazio-egileak ez izatea bere jokabidearengatik berarengatik kaltea jasateko betebeharrak juridikoa”.

Halaber, ondare-erantzukizun horri dagokionez, jurisprudentziaren doktrina finkatua da hura objektiboa edo emaitzazkoa dela dioena, halako moduz non garrantzitsuena ez den Administrazioaren jokabide ez-juridikoa, baizik eta emaitza edo lesioa ez-juridikoa izatea, nahiz eta ezinbestekoa izan zerbitzu publikoaren funtzionamendu normalaren edo ez-normalaren eta gertatutako lesio- edo kalte-emaitzaren artean kausazko lotura bat egotea.

V. GOGOETAK ETA KONKLUSIOAK.

Lehena. Txostenaren xede den kasuan, Nafarroako Gobernuak Lehendakariatzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuak, Aholkularitza Juridikoaren Zerbitzuaren bitartez, eta Nafarroako Foru Komunitatea ordezkaturik, 2019ko urtarrilaren 2an Iruñeko Instrukzioko 4. Epaitegiari eskatu zion eman zezala “baimen judiziala Foruzaingoko Ikerketa Kriminalaren Arloko eta Informazio Dibisioko agenteak, Nafarroako Gobernuak Ondare Zerbitzuak izendatutako teknikariekin batera, Rozalejoko Markesaren Jauregia deitutako higiezin sartzeko, Iruñeko Nabarrera Kaleko 17. zenbakian kokatutakoan, eraikinaren barruko aldetik egiaztatu zezaten egia zen ala ez 1. agiri gisa erantsi den txostenaren lehenengo paragrafoan aipatzen den informazioa, hau da, higiezin horren barruko aldean obrak egin direla, eta, kasua bazen, zehatz zezaten egiten ari ziren obraren norainokoa eta ondorioak”.

Baimena, eskaeran ageri den bezala, eskatu zen “pertsonen babesa emateko eta okupatzaile eta hirugarrenentzako balizko kalteak saihesteko, bai eta ondasunetarako (Foru Komunitatearen higiezin zein beste edozein pertsonarenak izan eta kaltetuta gerta daitezkeen higiezinak) kalteak saihesteko ere.

Iruñeko Instrukzioko 4. epaitegiak, 2019ko urtarrilaren 4ko autoaren bidez, baiezkotzea eman zion eskaera horri eta baimena eman zuen “Foruzaingoko Ikerketa Kriminalaren Arloko eta Informazio Dibisioko agenteak, Ondare Zerbitzuak izendatutako teknikariekin batera Rozalejoko Markesaren Jauregia deitutako higiezinaren barruko aldera sar zitezkeen, egiaztatutako higiezin horretan obrak eginak ziren ala ez, eta, kasua bazen, haien norainokoa eta ondorioak, “haztatik pertsonentzat eta ondasunetarako izan daitezkeen arriskuagatik eta arrisku horiek deuseztatutako edo subsidiarioki gutxitzeko behar diren neurriak hartzeko; Nafarroako Gobernuak, gainera, prebentzio-neurri per-

tsional eta material egokiak ezarri beharko dituzten diren jarduketek denboran iraun dezaten bermatze aldera”.

Horrenbestez, polizia-jarduketaren jatorria dago Nafarroako Gobernuak organo judizial batean egin zuen eskaeran, zeinaren xedea baitzen Rozalejoko Markesa Jauregia higiezinaren barruko aldera sartzeari, bertan obrak eginak ziren egiaztatze aldera eta, kasua bazen, segurtasun neurriak hartze aldera.

Herritarren Segurtasuna Babesteko martxoaren 30eko 4/2015 Lege Organikoaren 14. artikulua xedatzen duenez, agintari eskudunek (administratiboek zein judizialek) aginduak eta debekuak eman ahal izango dituzte eta ezinbesteko polizia-jardunak xedatu ahal izango dituzte herritarren segurtasuna babestea bermatzeko.

Bigarrena. Nafarroako Foruzaingoko agenteak, Nafarroako Gobernuak Ondare Zerbitzuak izendatutako teknikarekin batera, eraikinerari sartu ahal izateko, Foruzaingoko dispositibo bat zabaldu zuen Iruñeko Nabarriako Plazan, aipatutako Rozalejoko Markesaren Jauregia eraikinaren inguruan.

Dispositibo hori urtarrilaren 8ko 05:00etan hasi zen eta 2019ko urtarrilaren 11ko 16:00etan amaitu zen.

Halaber, ostalaritza-establezimendu baten titularrak den sozietate batek aurkeztutako ondare-erantzukizuneko erreklamazioa kontuan hartuz gero, 2019ko urtarrilaren 20an ere polizia-dispositibo batek jardun zuen Nabarriako Plazan, orduan ere Rozalejoko Markesaren Jauregiaren eraikina zela eta.

Hirugarrena. Nafarroako Foruzaingokoak, bai eta polizia-dispositiboak osatzera joan ziren Segurtasun Indar eta Kidegoak ere, ordenamendu juridikoak emandako ahalmena dute pertsonak bide edo toki publikoetan ibiltzea edo egotea mugatu edo murrizteko eta segurtasun-eremuak ezartzeko herritarren segurtasunean nahasmendua eragiten duten egoerak gertatzen direnean, edo nahasmendu hori gerta daitekeen arrazoizko zantzuak badaudenean, mantentzeko edo berrezartzeko ezinbesteko denboraz.

Herritarren Segurtasuna Babesteko martxoaren 30eko 4/2015 Lege Organikoaren 17.1. artikulua xedatzen duenez:

“Segurtasun-indar eta -kidegoetako agenteek bide edo toki publikoetan ibiltzea edo egotea mugatu edo murriztu ahal izango dute eta segurtasun-eremuak ezarri ahal izango dituzte herritarren segurtasunean edo bizikidetzak baketsuan nahas-

mendua eragiten duten egoerak gertatzen direnean, edo nahasmendu hori gerta daitekeen arrazoizko zantzuak daudenean, mantentzeko edo berrezartzeko ezinbesteko denboraz. (...)”.

Laugarrena. Nafarroako Foruzaingokoak segurtasun neurriak ezarri ahal ditu pertsonak toki jakin batzuetara sartzeari debekatzen dutenak, herritarren segurtasuna bermatzeko ezinbestekoa den eta behar den denboraz.

Herritarren Segurtasuna Babesteko martxoaren 30eko 4/2015 Lege Organikoaren 21. artikulua xedatzen duenez:

“Agintari eskudunek, aparteko segurtasun-neurri gisa, ezinbesteko bihurtzen duten larrialdi-egoeretan eta herritarren segurtasuna bermatzeko ezinbesteko denboraz soilik, honako neurri hauek hartu ahal izango dituzte: lokalak edo establezimenduak ixtea edo utzaraztea, pasatzea debekatzeari, higiezinak edo behar bezala mugatutako espazio publikoak ebakutzeari edota lehergaiak edo halakotzat erabil daitezkeen bestelako substantziak gordetzea. Agintaritzako agenteek aipatutako neurri horiek hartu ahal izango dituzte egoeraren larritasunak ezinbesteko bihurtuz gero, baita ahozko aginduak emanez ere.

Artikulu honen ondorioetarako, larrialditzat hartuko da pertsonak edo ondasunak berehala arriskuan jartzen dituen egoerak ondoren sortutako larrialdia, baldin eta hori edo horren eraginak arintzeko agintaritzaren edo bere agenteen aldetik berehalako jarduerari beharrezkoa bada”.

Bosgarrena. Konstituzio Auzitegiaren jurisprudentziaren arabera, herritarrek konstituzio-eskubideak baliatu ahal izatea mugatzen duen polizia-jarduketak honako printzipio hauen arabera izan behar du, besteak beste: xede legitimoa, beharra eta hartutako neurrien egokitasuna eta proportzionaltasuna.

Txosten honen xedea diren jarduketan kasu zehatzean, ikusten da herritarren zirkulazio aserako eskubide konstituzionala murriztu edo mugatu zuela Nafarroako Foruzaingokoak, justifikatuz eman daitezkeen eta legitimoak diruditen arrazoi batzuegatik, titulartasun publikoko eraikin baten eta pertsonen segurtasunaren babesarekin lotuta baitaude.

Seigarrena. Proportzionatuz jo daiteke pertsonen zirkulazio librerako eskubidea murriztea behar diren segurtasun fisikoko baldintzak betetzen ez dituen titulartasun publikoko higiezin bat berriz okupatu nahi zuten pertsonen pasatzea debekatu zitzaizenean.

Nafarroako Foruzaingoaren txostenaren arabera, pasatzeko murriztapenak ezarri ziren “higiezina okupatzearen aldeko pertsonak talde gisa eta poliziekiko etsaitasunezko jarrerarekin bertaratu zirenean”, “higiezina okupatzearen aldeko jendetza plazan dispositiboarekiko etsaitasunezko jarrera argiaz bertaratu zirenean”, “desordena publikoak gertatzen ari diren uneetan edo hurrengo uneetan halakoa geratzeko ageriko aurreikuspenik badagoenean” eta “harriak, botilak, txapliguak edo bestelako piroteknia-artefaktuak polizia-agenteei jaurtikitzen ari zitzaizkien bitartean”.

Zazpigarrena. Nabarrieriako Plazaren sarbidean aipatutako polizia-dispositiboa ezarrita egon zen egunetan, herritarrentzako muga batzuk ezarri zituen Nafarroako Foruzaingoak, plaza horretara sartzeko eskubideaz baliatzeari zegokionez, zeren eta, polizia-txostenaren arabera, bertara sartu nahi zutenek agenteei azaldu behar baitzizkieten zer arrazoi zituzten horretarako, eta arrazoiak azalduta, eta herritarren segurtasuna zela-eta goragoko arrazoirik ez bazegoen, sartzeko baime-na ematen zitzaien.

Erakunde honen ustez, muga horiek ere proportzionatuak dira bilatzen zen xede publikoari begiratuta (higiezina babestea, pertsonen segurtasun fisikoa eta herritarren segurtasuna mantentzea).

Zortzigarrena. Aitzitik, muga horiekin plazara sartzeko beren arrazoiak azaldu zituzten herritarrei eta higiezinaren okupazioarekin lotutako inongo jokabiderik egiten ez zuten edo egiteko itxurarik ez zuten herritarrei, edo dispositiboaren aurkako inongo jarrerarik ez zuten herritarrei pasatzea eragotzi bazitzaien, eremuan lasaitasuna zegoen uneetan, muga horiek zirkulazio aske-rako eskubidearen murriztapen desproportzionatu bihurtuko lirateke. Halaber, desproportzionatua izanen litzateke edozein pertsonari pasatzeko erabateko debekua ematea itxura batean herritarrentzako arriskuko edo segurtasun-ezeko inongo elementurik ez dagoenean.

Bederatzigarrena. Jarrera baketsua erakusten zuten bezero eta pertsonak sartzeari dagokionez, ikusten da ezen 2019ko martxoaren 1ean igorritako txostenean, hasiera batean, honako hau esaten dela: “Hiru puntu horietan hedatutako Eskuhartze Talde Operatiboen eginkizuna da eragozte Nabarrieriako Plazaren barruko aldera sar dadin horretarako baimenik ez duen inor, hau da, etxebizitzetako bizilaguna ez den, plazan bertan establezimendu bat ez duen edo hartan lanpostu bat ez duen inor”; aurrerago, berriz, honako hau esaten da: “inoiz ere ez zitzaiera plazara sartzeari eragotzi bertako bizilagunei, eta bertako sal-

tokietako jabe, langile, enplegatu edo bezeroei ere ez zitzaiera plazatik ibiltzea eragotzi, salbu eta desordena publikoak gertatzen ari diren uneetan edo hurrengo uneetan halakoa geratzeko ageriko aurreikuspenik badagoenean”.

Eta Esku hartzeko Dibisioaren Unitatearen 2019ko urtarrilaren 11ko txosten batean hauxe esaten da: “Iragazki bat ezartzen ari zela hesian, Rozalejoko Markesaren eraikinaren zerbitzu berezia zela eta. Iragazki horren xedea zen Iruñeko Nabarrieria Kanean bizi ez ziren edo bertan negozio bat ez zuten pertsonak sar zitezela eragozte”.

Hau da, polizia-txostenetan adierazitakoa ez da nahikoa honako zalantza hau uxatzeko: ea merkataritza- eta ostalaritza-establezimenduetako bezeroei eragotzi ote zitzaien plazara sartzeari eta bertatik ibiltzea desordenak egon ziren edo desordenak gertatzeko aurreikuspen agerikoa egon zen uneetatik harantzago. Ukitutako erreklamazio-egileen eta merkatarien bertsioen arabera, establezimendu horietako bezeroei plazara sartzeko debeku hori ezarri zitzaien baita aipatu diren uneez beste batzuetan ere.

Hori dela eta, ez da berretsita gelditu Nabarrieriako Plazan “zirkulazio askea egon zela, higiezina okupatzearen aldeko jendetza plazan dispositiboarekiko etsaitasunezko jarrera argiaz bertaratu zirenean izan ezik”. Badirudi ondoriozta daitekeela “polizia-hesi balizatu eta iragazkiduna” egon zela, mugatutako perimetroaren barruan bizi ez ziren edo lan egiten ez zuten pertsonentzako mugekin eta murriztapenekin, eta hura operatibo egon zela baita arrisku- edo gatazka-egoerarik antzematen ez zen uneetan ere.

Aurrekoa ikusita, herritarren segurtasunerako arriskuko egoerarik antzematen ez zen une jakin batzuetan gertatu ahal izan ziren zirkulazio aske-rako eskubidearen aurkako polizia-murriztapenak, hesiaren barruan kokatutako establezimenduetako bezeroei ezarritakoak (ostalaritza-establezimendu baten erreklamazio bat badago) edo jarrera bake-tsuarekin eta polizia-jarduketaren xedearen aurkako jarrerarik gabe pasaeran zeuden eta Rozalejoko Markesaren Jauregian gertatzen ari zenarekin zerikusirik ez zuten pertsonen ezarritakoak, proportzionaltasun-printzipioaren aurkakotzat jo behar-rekoak dira, Konstituzio Auzitegiak emandako interpretazioaren eta Herritarren Segurtasuna Babesteko martxoaren 30eko 4/2015 Lege Organikoaren 17.1 artikulua arabera. Lege horrek, izan ere, eskatzen du zirkulaziorako polizia-mugak edo -murriztapenak, bide edo toki publikoetan ezarritakoak, ezinbestekoa den denboraz ezarri behar direla.

Erakunde honek egokitzen du ez, toki publikoetako polizia-hesi eta -iragazkien kasuan, herritarrengan lasaitasuna antzematen den unean, berriki daitezela establezimenduetako bezeroen eta jarrera baketsuarekin eta polizia-jarduketaren xedearen aurkako jarrerarik gabe pasaera dauden herritarrei pasatzeko mugak ezartzeko jarduketaren irizpideak.

Hamargarrena. Erakunde honek egiaztatu du, bai hedabideen bitartez, bai jasotako informazioaren bidez, Nabarreriako Plazan ezarrita dauden merkatarien eta ostalarien keak egon direla; izan ere, halakoek baieztatzen dute ezen, polizia-jarduketaren garatu zen egunetan, beren negozioetara sartu nahi zuten bezero asko galdu zituztela.

Nabarreriako Plazako eta inguruetako merkatariek eta ostalariak prentsurreko bat egin zuten 2019ko urtarrilaren 10ean, eta bertan honako hau kritikatu zuten: “polizia-okupazioa zela eta, beren negozioak itxi behar izan zituztela edo alferrik ireki zituztela, zeren eta bide publikoaren sarbide librea eten egin baitzen” eta “egunero 20.000 euro inguruko galera ekonomiko bat nozitu zutela”. Merkatariek eta ostalariak keku agertu ziren agenteak “plazan hizketan egoteagatik arreta deitzera ere iritsi direlako”. Iragarri zuten bide judizialean salatu zituztela “galera ekonomikoak eta pairarazten ari zaizkigun salbuespeneko egoera”.

Horri buruz, egokitzen dugu aipatzea ezen beren negozio-jardueran kalterik izan dutela uste duten pertsonak eskubidea dutela ondare-erantzukizuneko erreklamazio bat egiteko Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta merkataritza-jardueran nozitutako gutxipenetik datozen kalteengatik kalte-ordainak eskatzeko. Ondare-erantzukizunaren aitopena, nolahi ere, lotuta dago legedi indardunean eskatzen diren baldintzak eta betekizunak betetzearekin; horien artean dago kausalitate-erlazioa demostratzea, alegatutako kalte efektiboa frogatzea eta eginbehar juridiko bat pairatu behar izatea (Konstituzioaren 106.2 artikulua eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 32. eta 34. artikulua).

Konstituzioaren 106.2 artikulua honako hau ezartzen du: “Subjektu pribatuek, legeak finkatutako eran, eskubidea izango dute, beren ondasun eta eskubideetan izandako kalte guztien ordaina jasotzeko, ezinbesteko kasuetan izan ezik, baldin eta kalte horiek herri-zerbitzuen funtzionamenduaren ondorioz gertatu badira”.

Konstituzio-aurreikuspen hori garatze aldera, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 32. eta 34. artikuluek honako hau xedatzen dute:

“32. artikulua. Erantzukizunaren printzipioak

1. Partikularren eskubidea izango da administrazio publikoen kalte-ordaina jasotzea euren ondasun eta eskubideetatik edozeinetan jasotako lesio ororengatik, baldin eta lesio hori zerbitzu publikoen funtzionamendu normal edo anormalaren ondorioz sortu bada, salbu eta ezinbesteko kasuetan edo partikularrak legearen arabera eginbehar juridikoz jasan behar dituen kalteak diren an. (...).

2. Alegatutako kalteak, betiere, benetakoak izan behar du, ekonomikoki neurgarri eta indibidualizatua, pertsona bat edo pertsona-talde bat dela eta. (...).”

“34. artikulua. Kalte-ordaina

1. Bakarrik jaso ahal izango da kalte-ordaina partikularri eragindako lesioak datozenean partikularrak legearen arabera eginbehar juridikoz jasan behar ez dituen kalteetatik. (...).

2. Kalte-ordaina kalkulatzeko, balioespen-irizpidetzat hartuko dira zerga-legerian, nahitaezko desjabetzeari buruzkoan eta aplikagarri diren gainerako arauetan ezarritakoak; hala badagokio, merkaturan nagusi diren balioespenak ere haztatuko dira (...).

3. (...).

4. (...).”

Rozalejoko Markesaren Jauregian sartzea dela-eta Nabarreriako Plazan ezarritako polizia-dispositiboarekin lotuta aurkeztu zaizkion edo aurkeztu zaizkion ondare-erantzukizuneko erreklamazioak behar den diligentsiaz, objektibotasunez eta profesionaltasunez izapidetu eta ebazteko legeko eginbeharra du Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak, herritarrek administrazio egokia izateko daukaten eskubidea errespetatuz, hain zuzen ere Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta Foru-sektore publiko instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen 104. artikuluan ezarritakoa.

Hori guztia jakinarazi behar diot Nafarroako Parlamentuari erakunde horrek egin digun txosten-eskariari erantzuteko.

Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuari txostenaren kopia bat helarazi zaio, ezagut dezan.

Iruñean, 2019ko martxoaren 27an.

El Defensor del Pueblo de Navarra/ Nafarroako Arartekoa: Francisco Javier Enériz Olaechea

Gelazain nagusiaren burutza, merezimenduen lehiaketa bidez, betetzeko deialdia.

Izangai onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda

Lehendakaritza honek, Nafarroako Parlamentuko gelazain nagusiaren burutza gelazainen kidegoko funtzionarioen artean merezimenduen lehiaketa bidez betetzeko deialdirako eskaerak aurkezteko epea bukatuta –deialdia 2019ko apirilaren 5eko 48. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen–,

ERABAKI DU:

1. Izangai onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda onestea, deialdiko 4. oinarrian ezarritakoarekin bat. Horra:

Onetsiak:

Ansorena Urriza, Antonio

Baztertuak:

Inor ere ez.

2. Ezartzea 2019ko ekainaren 8a izanen dela deialdiko 6.3.1. oinarriak ezartzen duen lan-oroitidazkia Nafarroako Parlamentuko Erregistro Orokorrean aurkezteko azken eguna.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2019ko maiatzaren 14an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

H saila:
BESTELAKO TESTU ARAU-EMAILEAK

2/2019 Foru Lege Dekretua, maiatzaren 15ekoa, zeinaren bidez onesten baitira Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko langileen arloko neurri batzuk.

BATZORDE IRAUNKORRAK BALIOZKOTU DU

Nafarroako Parlamentuko Batzorde Iraunkorrak, 2019ko maiatzaren 20an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. 2019ko maiatzaren 20an Nafarroako Parlamentuko Batzorde Iraunkorrak onetsi zuen baliozkotzea Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko langileen arloko neurri batzuk onesten dituen maiatzaren 15eko 2/2019 Foru Lege Dekretua. Foru Lege Dekretu hori 2019ko maiatzaren 17ko 95. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1. artikuluan ezarritakoa betez, erabaki hori argitara dadin agintzen dut.

Iruñean, 2019ko maiatzaren 20an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

2/2019 Foru Lege Dekretua, maiatzaren 15ekoa, zeinaren bidez onesten baitira Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko langileen arloko neurri batzuk

ZIOEN AZALPENA

2018ko martxoaren 26ko Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen Funtzio Publikorako Estatu Idazkaritzaren 2018ko martxoaren 22ko Ebazpena, zeinaren bidez argitaratzen baita Gobernuaren eta sindikatuen arteko enplegu publikoa eta lan baldintzak hobetzeko II. akordioa, 2018ko martxoaren 9koa. Akordio horretan, lehenbiziko atalean, ezarri zen soldata igoera finko baterako urte anitzeko esparru bat sektore publikoaren zerbitzuan ari diren langileentzat,

baita ekonomiaren hazkundeari lotutako igoera-ehuneko aldakor bat ere, kalkulatu zena 2018-2020 aldiko Barne Produktu Gordin errearen igoeraren arabera.

Aipatu akordioaren lehenbiziko atalak aurreikusten zuen funts gehigarri batzuk izanen zirela aipatutako aldiko ekitaldi bakoitzerako (2018ko, 2019ko eta 2020ko ekitaldiak), deskribatzen ziren baldintzetan, eta funts horiek, negoziazio kolektiboaren ondoren, bideratzen ahal zirela, besteak beste, produktibitatea edo efizientzia hobetzeko planak edo proiektuak ezartzera, pareko eginkizunak dituzten lanpostuen arteko osagarri espezifikoak berraztertzerako, destinoko osagarriak homologatzerako edo pentsio planei ekarpenak egiteko. Gainera, 2021ean igoera gehigarri bat egiteko aukera erantsi zuen, ezartzen zituen baldintzetan.

Aurrekoa oinarri harturik, 2018ko urriaren 4an akordio bat sinatu zen Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen eta LAB, CCOO eta UGT sindikatuen artean, zeinak jorratzen baitu nola aplikatu Enplegu publikoa eta lan baldintzak hobetzeko Gobernuaren eta sindikatuen 2018ko martxoaren 9ko II. akordioaren lehen atalak ezartzen duena. Akordio horrek, urte anitzeko izenpetu baitzen, neurri batzuk aurreikusten ditu langileen arlorako, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen esparrurako, 2018-2021 aldirako. Nolanahi ere, neurri horien gauzatzeko bat etorriko da une bakoitzean indarrean diren legeekin.

2018ko aurrekontu ekitaldiari dagokionez, Estatuko 2018rako Aurrekontu Orokorrei buruzko uztailaren 3ko 6/2018 Legearen 18.Bi artikulua xedatzen zituen, besteak beste, behar diren gaikuntzak posible izan zedin gauzatzeko Nafarroako Foru Komunitatearen eta haren erakunde

autonomoen esparruan 2018rako sinatutako urte anitzeko akordioko neurriak; hortaz, neurri horiei arau maila eman zitzaien urriaren 24ko 1/2018 Foru Lege Dekretuaren bidez, zeinaren bidez onesten baitira Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko langileen arloko neurri batzuk.

2019ko aurrekontu ekitaldiari dagokionez, Sektore publikoaren esparruko ordainsarien arloan premiazko neurriak onesten dituen abenduaren 21eko 24/2018 Errege Lege Dekretuak antolamendu juridikoan txertatu zuen aukera 2019rako ere Nafarroako Foru Komunitatearen eta haren erakunde autonomoen esparruan 2018ko urriaren 4an sinatutako urte anitzeko akordioko neurriak gauzatzeko; hortaz, bidezkoa da neurri horiei arau maila ematea foru lege dekretu honen bidez.

Izan ere, 24/2018 Errege Lege Dekretuaren 3.Bi artikulua ezartzen du 2019an soldata-masa beste %0,25 igotzea baimendu daitekeela, produktibitatea edo efizientzia hobetzea helburu duten planak edo proiektuak ezartzeko, pareko eginkizunak dituzten lanpostuen arteko osagarri espezifikoak berrikusteko, destinoko osagarriak homologatzeko edota pensio planei ekarpenak egiteko, besteak beste; halaber ezartzen du 2018ko ekitaldian aurrekontu superabita daukaten administrazio publikoetan, igoera osagarri hori ehuneko 0,30era iritsi daitekeela.

Horri dagokionez, Ogasuneko Ministerioak 2019ko maiatzaren 10ean egindako aurrekontu egonkortasunaren, zor publikoaren eta 2018ko ekitaldiko gastu arauaren betetzeari buruzko txostenak baieztatu du Nafarroako Foru Komunitateak bete duela bere aurrekontu egonkortasunaren helburua aipatu ekitaldian, eta aurrekontu superabita izan duela 2018ko ekitaldiaren amaieran.

Horregatik guztiagatik, abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 21 bis artikuluan jasotako baimena erabiliz, Lehendakartzako, Funtzio Publikoko, Justiziako eta Barneko kontseilariak proposaturik, eta Nafarroako Gobernuak 2019ko maiatzaren 15ean egindako bilkuran hartutako Erabakiarekin bat etorritz,

DEKRETATZEN DUT:

1. artikulua. Administrari laguntzaileak. C mailan/taldean integratzeko osagarri iragankorra handitzea.

Administrari laguntzaileen lanpostua edo izendapena duten langileak C mailako/taldeko administrari lanpostuan integratzeko osagarri iragankor-

ra handitzen da, D mailako/taldeko hasierako soldataren %14,95era iritsi arte.

2. artikulua. Haur-hezitzaileak. Lanpostuko osagarria handitzea.

Haur-hezitzaileen lanpostuko osagarria %10 handitzen da, C mailako/taldeko hasierako soldataren %18,52ra iritsi arte.

3. artikulua. Zerbitzu orokorretako langileak, suhiltzaile-peoi laguntzaileak eta zeladoreak. Lanpostuko osagarria edo berariazko osagarria handitzea.

1. Zerbitzu orokorretako langileen eta suhiltzaile-peoi laguntzaileen lanpostuko osagarria D mailako/taldeko hasierako soldataren %2 handitzen da.

Urriaren 20ko 11/1992 Foru Legearen aplikazio eremuan sartzen diren zerbitzu orokorretako lanpostuen kasuan, %2ko igoera hori berariazko osagarriari aplikatuko zaio.

2. Zeladoreen berariazko osagarria D mailako/taldeko hasierako soldataren %1,73 handitzen da.

4. artikulua. Zerbitzu orokorretako arduradunak. Lanpostuko osagarria handitzea.

Zerbitzu orokorretako arduradunen lanpostuko osagarria D mailako/taldeko hasierako soldataren %5 handitzen da.

5. artikulua. Gidari lanpostua, 6169 zenbakia duena. C maila/taldean sartzea.

Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuko Laguntza eta Kudeaketa Administrazioaren Zerbitzuari atxikitako gidari lanpostua, 6169 zenbakia duena, C maila/taldean sartzen da, eta ordainsari osagarri hauek izanen ditu, C mailako/taldeko hasierako soldataren gainean kalkulatuak: %4,52ko lanpostuko osagarria, eta %8ko arrisku bereziko osagarria.

6. artikulua. Jaiegunetan lan egitearen konpentsazio ekonomikoa handitzea C eta D mailetan.

Jaiegunetan lan egitearen konpentsazio ekonomikoa handitzen da, honela: 0,16 euro orduan C mailan/taldean, eta 0,33 euro orduan D mailan/taldean.

7. artikulua. Gauaz lan egitearen konpentsazio ekonomikoa handitzea C eta D mailetan.

Gauaz lan egitearen konpentsazio ekonomikoa handitzen da, honela: 0,16 euro orduan C mailan/taldean, eta 0,25 euro orduan D mailan/taldean.

Xedapen gehigarri bakarra. Foru lege dekretu hau aplikatzeak dakartzan ondorioen data.

Foru lege dekretu honetan jasotako neurriek atzeraeragina izanen dute, 2019ko urtarrilaren 1etik.

Azken xedapenetako lehena. Ordainsari osagarriak aldatzeko gaikuntza.

Nafarroako Gobernua gaitzen da plantilla organikoko lanpostuen ordainsari osagarriak aldatzeko, indarreko araudiarekin bat.

Azken xedapenetako bigarrena. Nafarroako Parlamentura igortzea.

Foru lege dekretu hau Nafarroako Parlamentura igorriko da baliozkotu dezan, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 21 bis artikulua 2. apartatua ezarritakoaren arabera.

Azken xedapenetan hirugarrena. Indarra hartzea.

Foru lege dekretu hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, eta argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

